

ABARAK

BUSTINTZA'tar EBAISTA



KIRIKIÑO SAILLA KIRIKIÑO SAILLA KIRIKIÑO SAILLA KIRIKIÑO

GEU ARGITALDARIA

**LENENGO
ABARRAK**

**BUSTINTZA'tar EBAISTA
KIRIKIÑO**

LENENGO ABARRAK

EDITORIAL GEU ARGITALDARIA

© Aita Santi Onaindia

D. L.: BI-162-84

I. S. B. N.: 84-85328-18-3

GEU Argitaldaria

Banatzallea: San Miguel —Euskal liburu Zabalpenak—

Mazarredo, 19

Teléf. 423 16 55 - 424 76 98

BILBAO-1

Imprime: I. BOAN, S. A. Particular de Costa, 12-14, 7.º - BILBAO-10

BUSTINTZA 'TAR EBAISTA (1866-1929)

—KIRIKIÑO—

Euskal literaturan "Kirikiño" ez-izenez ezagutzen dogu. Askok goratu izan dabe mañaritar euskal idazle jator au, bere ipuiñakaitik batez be. Xabier Gereño'k onela diñosku: "Zorionekoak, eurak mundu onetan joanda gero, euren atzean zeozer ixten dabenak. Kirikiño'k bai itxi ebala itzal ederra mundu ontatik joanda... Kirikiño bizkaitarra zen. Bera izan bear da guretzat ejenplu. Bere bidea jarraitu bear dogu. Euskeraren bear izana daukagu Bizkaian. Euskera galtzen badogu, gure erriaren espiritua galdu egingo dogu. Euskera ez da guretzat izkuntza bat, bestelako izkuntza bat. Euskera da gure arima ta iñork,

ezta munduko urre guztiagaitik, eztau bere arima galdu bear".)

Mugarra ta Untzillaitz bitarteko erri lerden Mañari'n jaioa dogu Bustintza eta Lasuen'dar Ebaista, "Kirikiño", 1866'gneko urrillaren 26'an. Bere gurasoak: Karlos ta Juliana. Munduratu ta bertatik bateo-urez kristiñautu eben euren semetxoa. Urkiola'tik beera gatozala, erri-gerrian, ezkerretara daukazu Etxanoa, Kirikiño'ren sortetxea; gerora, Ebaista zazpi urteko zala, etxe au itxi ta zerbait goratxoago dagoan "Zumelaga"-ra aldatu jakun Bustintza sendia, etxe au erosi bait eban aitak.

Erriko eskolan ikasi eban lenengo, ta Durangon gero. Buru argikoa etorren. 1878'an, barriz, Almansa (Albazete)'ra joan zan Bustintza famili osoa, leendik be aitak an eukan anai bat apaiz eta arreba bat ezkondata. Kirikiñok emen osotu ebazan urrengo ikasteak, batxiller eta gaiñerakoak, ikasgai guztietan nota onak jaritxirik. Amazazpi urtegaz, Madrid'en daukagu, Bideetako Injenieru ikasteko asmoz, baiña karrera au itxi ta Jakintza ikastolan burutu ebazan orduko ikas-saillak, 1891'an Fisika ta Matematiketan lizenziatu titulua lortuaz. Andik laster Siguenza'n dago, antxiñako Ikastetxe nagusi aretan Elizak eukan irakastegian Matematikak batez be erakusten.

Madrid'en ostatu egoala beste gizaseme ospatsu askoren artean, Martzelo Torrontegi, euskaltzale fiña, izan eban ikasle lagun; auxe eban geienetan txango-lagun be, eta bion arteko autua ta izketa-gai, euskera izan oi zan ia beti. Olan euskal-suak garra atara eutson gazterik barruan. Euskal arloan, beraz, lan egin eban, eta 1899'an, Siguenza'ri agur egiñik Bilbo'ra etorri jakun. Arrezkero

guztian berton bizi izan zan, euskal gauzai korapillo sendoz lotu ta ekiñaz. Gran Via'n egoan Montellano'ko Miña-Alkartasun bateko diru-goraberak eroan ebazan arren, euskereari eskiñi eutson bere bizitzaldi osoa.

Erbestetik ebillela be borbor eroian euskal lapikoa beroagotu egin jakon Bilbo'ratu zanean. Azkue zanak beingoan artu eban lagungarri lez "Euskalzale" aldizkarian; ementxe agertzen da Kirikiño'ren lenengo idazlana, Zerutar bat; ipuin labur polita: eundako onako egingo zituan gero. 1902-3'ra Kirikiño'k zuzendu eban, Azkueren aginduz, "Ibaizabal" agerkaria; onen zuzendari zala il jakon aita, Karlos Bustintza, 80 urtetan, an Almansa'n, bere seme-alabak, Paulin apaiza, Frantziska, Felix eta Ebaista oe-inguruan ebazalarik.

Idazle ez-ezik, irakasle bizkor be izan jakun. Bizkaiko Diputaziñoak aldi aretan euskerazko ikastola bat eukan, eta antxe irakatsi eban Bustintzak, lau urtean Azkue jaunaren ordeaz eta beste ogei urtean bere arduraz. Euskeraz tautik jakin ezta be, zenbatek ikasi eban beragaz errez ta nasai itz-egiteko bestean. Orduko egun-ikastaroak gogoratuz, ona zer diñoan emakume euskaldun barri batek: "Euskal ikastolearen aldi gozatsu gomutagarria. Egun osoan arratseko ikastola orduaren begira egoten giñan. Eta berau eldu baiño apurtxu bat lenago joaten gintzazan ara, Instituto zarrera, irakasle maitiagaz barriketalditxo bat egitera. Zelako gomutak dakarstazan burura bere eriotzak!" Ikastaroa amaikeran ibiltaldi goxo bat egin oi eban ikasleakaz.

Lan arteko atsedena bear ebala-ta, urtero bere Mañari kutunean emoten eban illabete bat. Orduan eukan aukera

egokia, zelai, mendi ta baserriak zear ibillirik, areitako biztanleen ao-ezpanetatik euskerazko itz eta esaera bitxi asko jasoteko. Orduan maite-mindu be egin jakun, antza, ta 1909'an ezkondu zan bere loba zan Basili Bustintza Ozerin'ekin. Andra aukerakoa bizi-laguntzat, euskaldun zintzoa ta kristiñau ona. Ez eben seme-alabarik izan.

1913'an "Euzkadi" egunerokoa asi izan Bilbo'n; euskal atal bat eukan onek. Atal au zuzentzeko Kirikiño aukeratu eben, eta ementxe lan egin eban, beti zintzo ta gogotsu, amasei urtez. Makiña bat lan eder idatzi eban, egunik egun, eguneroko aren orrialdeetan! Errez, arin, piper-miñez zipriztinduta etozan aren lanak, eta irakurleak orri aretara joiazan jakin-miñetan. Orduantxe egin eban guztiz entzutetsu bere izen-orde Kirikiño, ta arrezkero, goitizan orrekin dazaugu gure literaturan. Aurreragoko idazlanetan Mañari, Bloa ta Boldro be erabilli zituan.

Izlari be ba-zan, eta bikaiña. Euskal jaietan eta mitiñetan sua zan aren itza, ta entzuleen biotzak be sutan ipiñi oi zituan. Urte areitan guztiz euskaltzaletu zan gure erria, eta euskaltzaletze ori, Bizkaian atan be, zatitxo bat beintzat, berari zor dautsagu. Aren eragiña eguzkiaren pareko zan. Aundi ta txiki, danetaraiño zabaldu zan eragiña. Danak zituen maite, baiña gure izate ta arnasaren erro dogun euskaltzaleena batez be. Arek bai samut itz-egin umetxoai, onein biotz-adimenetan berak eroian zerbait barren-azo naiez!

Zelako ete genduan gorputzez? Abeletxe idazleak onan margozten dauku: "Aretxa lez sendo ta lerden. Bizar politez oso serioa. Betaurreko biribillen ordez, ilgoran

*illargi erdiak izaten daben irudikoak eroazan. Gure kor-
batearen lazo bat txori eginda. Soñez, jakituriz, izakeraz,
bere bizikoa zan”.*

*Urteak, baiña, ez dauskue parkatzen. Eta bein, Bilbo'n
eukan lantegia itxi ta Mañari'ra joan jakun Kirikiño, zar-
tzaroko egunak atsedean gozoan igaroteko ustez. 1928'gn.
urtea zan. Nekaturik be ba-egoan bear bada, ala eriotzaren
urretasuna somatzen ete? Dana dalarik, Goiko Jaunak
betiko atsedenera eroan euskun. 1929'an Mañari'n, bere
etxe Zumelaga'n il zan gure euskaltzale eredugarria. Egun
batzuk aurrerago, etxosteko baratzean ebillela arri batean
laban egiñik jausi ta ortik il zan Elizakoak eraspen aundiz
artu ondoren. Kristau ta euskaltzale bizi, kristau ta
euskaltzale il.*

* * *

*Idazleen bizitzak eta lanak edesten ditu literaturak.
Kirikiñok asko idatzi eban, amasei urtean ez bait eban beste
arazorik izan, esatekorik beintzat, euskeraz idatzi ta ira-
kastea baiño. Idazkeran, gozo ta errikoi agertzen jaku
noiznai. Irudimen ariñekoa zan, eta olako gazigeza ta
gatz-ozpin biziarekin gozatzen euskuzan bere lanak, ipuin
eta ostantzekoak. Idazten asi zanetik elburu bat eukan begi
aurrean: erriarentzat idatzi. Gure erria etzan garai aretan
gaur baizen eskolatua, naiz-ta gaur be euskal gaietan orren
jakitun ez izan; Kirikiño, beeraiño makurtuaz, erriari egoki
jakona emoten alegindu zan. Ezta egiteko erreza; idazleak
idatzi dagi, erriak osterira irakurri; biok, idazlea ta erria,
mailla bardin samarrera ekarri bear ditugu, bitzuon lana
onuragarri izan daiten: ez bata gooregi ta bestea beeregi.*

Erriak, beraz, ikasi bearra dau, goiko mailla begiratzuz; idazleak, albait errezen idatzirik, erria izan bear dau gogotan. Erriaren adimena argitu, erriaren biotza esanaren beraz duindu: ori egin eban Kirikiñok.

Mañaritarrek, naiz-ta bigarrenez esan, erria euki eban aurrean, gure erria. Eta antxiñako erri guztiak lez, ba-ekian gure euskal erria eder-min dana, eta ederra ipuiñez, alegiz, kontuz, bertsoz, olerkiz adierazo oi dogu geien batean: orretan jarduna dogu Kirikiño. Jakituna izanda be, gai mee ariñak, errez ulertzekoak idazten alegindu zan bere pentsamentuak eta biotz zauskadak lau-lau azaldurik. Eta ortik datorkie bere liburuai barruan daben biguntasuna, gozotasuna, edertasun betea.

Ipuinak eta beste lanak, Kirikiñok "Euskaltzale"-n, "Tbaizabal"-n eta "Euzkadi"-n argitaratu zituan. Esku artean daukazun liburu au berak argitaratu eban (Bilbo, 1918) Grijelmo Alargunaren irarkolan; "Bigarrengo Abarrak" (Zornotza, 1930), egillea ilda gero, Jaungoiko-Zale bazkunak atara eban, Bilbo'ko Euzko-Pinkundiaren pentzutan; "Abarrak... eta abar" (Bilbo, 1966) neuk argitaratu neban, Mañari'ko erriak bere seme gotorrari egin eutson omenaldia zala-ta; "Egunekoa" (Bilbo, 1981), Xabier Perea. Mañari'n luzaro apaiz egondakoak osoturiko bilduma bat, polito egiña. "Bigarrengo Abarrak" (Bilbo, 1980) oraintsu argitaratua dogu, atzenez. Kirikiño'ren lanak, ba, esan geinke, ez ditugu, beste euskal idazle askorenak lez; baztertuta itxi.

Euskalerriko aldizkari ta egunerokoetan be, naiz-ta ez osorik, sarri argitaratu izan dira lanok. Euskaltzaindiak berak (Donostia, 1956) Bustintza'ren bost ipuiñezko

argitalpen bat egin eban, bizkaieraz eta gipuzkeraz, *A. Ayalde*'ren marrazki ederrez apainduta. Merezi duenak merezi merezi dau, ta kitu. Eztegu bat zala, bateo zala, naiz beste edozein kutsuko jairen bat zala, an zan mañaritarraren eskua, arduratsu ta langille, euskal zer orren bitxia jaso ta goralduz.

Esker onez eta adeitsu txalotu bear dogu onako lana. Eta olaxe egin izan danik ezin ukatu. Asko aizatu izan dira, leen eta orain, Kirikiño'ren erri-idazkera (estiloa) ta ipuin-trebetasuna batez be. *Beti txaloka, esan gengike. Badiu, egia esateko, bere akats pitiñak; baiña orren maisu errimeari dautsogun begiruneagaitik edo, oraindik ez da iñor ausartu ari ezain-izpirik jarten.*

Goralpenak, barriz, upelka. Aingeru Irigarai'k an 1931'an (RIEV, 226): Kirikiño'ren idaztankera (estiloa) eredugarri dugu xaloki. *Euskera garbia du, baiña gutxi ikasientzat ere aisa ulertzekoa; Bizkai-izkelgi darabil, mugaz emendikoen artean berezko gatz eta nabardura geienez idazten dana. Aldizka beste izkelgietako esan-itx eta jokerak —itxi, utzi ta olakoak— darabilzki, beti ere izkelgi-diferentziak geiegi aunditu gabe; geiegitze au bada, gure ustez, izkuntzaren zabalgundeari kalte dagiona dugu, euskera idatzia eratzeko batez ere*".

Ez bakarrik idazle, idazle-barri sortzaille ta bultzatzaille bizkor be izan zan Bustintza; gaur egiten ez doguna, bear bada. Zenbat euskal idazle asi-barriri ez ete eutsen ezarri luma eskuratu ta lantxoak idazten ekiteko adorea? Eusebio Erkiaga'k onela: "Kirikiñok halako giroa sortu zuan gure izkeraren alde. Hainbat eta hainbat euskaldun jarri zituan euskeraz idazten. Orduan sortu ziran, erri-

idazle izango ziranak, orduan "euskal idazleak". Kirikiño il ta urrengo urteetan, izan ere, gure izkuntzarentzat halako askatasun aize garbiagoa eratu zan ezkerero, euskaltzaletasunak garra artu zuan". Gaur, zori txarrez, euskerari (il ez dadin) eutsi naita gabiltzan momentu larri onetan ez dagigu olakorik; bestera baiño, bakotxa bere aldetik doa, besteena ez dogu ikusi nai, besteei ez dautsegu lagundu gura, eguneroko ta aldizkarietan ez dautsegu, geure-geureai izan ezik, tokirik itxi bear. Leia zital eta arlote ta kaltegarri au ezetsi ta uxatu arte ez dogu "euskal idazlerik" izango. Itxi bakotxari idazten, itxi bakotxari bere lanak azaltzen. Idazleak, bere sorpenak argitaratu opa ditu.

Gaur eta leenago, gizaseme askok eta askok mundu ontako biziari kirets-usaiña artzen dautsoe. Eta, jakiña, bide bat aurkitu nai zelan edo alan ke-moltso ortatik iges egiteko; askok ames-munduan murgiltzea, eder. Eta P. Lafittek: "Ez dute hortarako ahantz-gailu eta zora-gailu eskasik: batzuk arras ohoragarriak, hala nola lana eta otoitza; bertze batzuk higuingarriak, hala nola edari eta drogak; eta hirugarrenekorik, bienarteko zenbait, hala nola jostetak".

Josteta-maillan irudimenaren sorpenak daukaguz: kantuak, teatrua ta ipuiñak. Euskalduna ezta urri ibillia ipuin-kontuan. Nun sortu ta bizi izan dira euskal ipuiñak? Lafittek berak diñosku:

- 1. Supazter txokoan, apal-ondoetan sugarren inguruan.*

2. *Mai-inguruan, bazkal, bateo, len Jaunartze, ezkontza, gari-jote...*
3. *Ostatuan, zeregin barik, musaldi ostean...*
4. *Eskaratz eta inguruetan, arto-zuritze illuntzetan, eta, iñor ez dago mutu.*
5. *Eiztariak, euren artean, bazkari naiz apari ostean, amaika guzur ta arrokeri alkarri kontatzen...*

Kirikiño onako guztietan esku artua dogu. Ez gero Mañari'n bakarrik, beste leku askotan be bai; ez izan zalantzarik. Baiña beti bertako gauzak, gizarteko goraberak, baserrietako jazokunak, olako gau-batzar eta auzo-lanetan jasoak ainbat eta ainbat. Beste aldetik, Kirikiñok ez dauku iñoiz aitutzen Mari'rik, Olentzero'rik, Aitor'ik, ezta Maitagarririk, euskal siñiskeran bizi-bizi dagozanak. Beste mundu bat da berea. Egiazko euskal mundua. Irripar gozoa beti dantzari. Iñori miñik emoteke.

Danak dagoz, liburu onetakoak batez ba, ederto moldatuak; baiña batzuk klasikoki. "Itozurak ziñaldari" deritxona, adibidez, Prakerre ta Motjollo'ren arteko asarrre, burruka ta ondorenak, zein mamñez eta zein euskera ederrez, ezin obeto tajutuak daukazuz. Irakur egizuz, eta zuk be, benetako pozaldiak izango dozuz; baita, zergatik esan ez?, euskera jatorraren jaube egin be.

*AITA ONAINDIA
Larrea, 1983-11-11*

IRAKURLEENTZAT OARRA

Ona emen, **Abarrak** deitu dautsedan irakurgaitxu oneik.

Egurgiñan sartu naz ni gure euskera ederraren oihanean. Bertan ain ugari dagozan zugatz-enbor-lodidunak eta euren besanga ta adar andiak ebagi ta gertau ta ekartea izango zan nire atsegiñik andiena; baiña ezin, orretarako bearrak dira, ba, beso sendoa ta azkora andi zorrotza. Nire besoa ta azkorea, barriz, bata makala ta bestea sorbatzik (filo) bakoa dira.

Lan ori eziñik zerbait orraitino egin gura-ta, egur meiari, abarrari, ekin dautsot, eta besarkada (brazada) auxe gertatu ta ekarri dot. Al izan dodana.

Egur me hau be zetarako edo atarako bai da. Su andia egiteko, egur lodia izatuteko, lenengo abarrari ezarten jako sua, ta onegaz ari gero.

Irakurgaitxu oneik be gogo askotan sortu leie euskeraz irakurteko zaletasuna. Txikiak, meiak, arin-ariñak, errazak, barru gitxidunak, gehienak barre batzuk eragitekoak izanik, euskeraz irakurten bape (bat bere) zalea ez danak onakoxeak atsegiñez artu leiz, ta eurok, abarrak lez, bere gogoan sua biztu.

Euskera zehatzaren zale ba zara, urrean sarri okertuko dozu musturra irakurgaitxo oneitan aurkituko dozuzan erderatiko itz ugariak ikusita; baiña gogoratu eikezu eurok ez dirala idatzi eun urte geroagoko euskaldunentzako, ezta gaur euskera zehatz-zehatza ta erdel-antz apur bat daben itz bakoa jakin eta erabilli oi daben euskeldun banakerentzako bakarrik be. Ez, eurok idatzi dira gaurko euskeldun gehienak dakien euskeraz, gehienak irakurri ta ulertu al dagien euskeraz.

Irakurgaitxu gehienak landik argitalduak dira izparringi (eguneroko) baten edo bestean. Urte asko dala Bilbao'n, Azkue abade jaunaren artezkuntzapean agertzen zan izparringi asteroko eder-ederrean, "Euskalzale"-n, argitaldu ziran: *Zerutar bat*, *Deun izateko bidean*, *Azeri azartuak oilloa daroa*, *Aurrerapen ikaragarri bat osakuntzan*, *Ito-xurak ziñaldari* (testigu).

Geroago uri onetan bertan bizi izan zan asteroko izparringi "Ibaizabal"-en argitaldu ziran: *Peru Makur* eta *Azeriari azeria*.

Euzkadi ingurtian (folleto) argia ikusi eban lenengoz onexek: *Garagarrillean edurra*.


Eta *Euzkadi* egunerokoan urten dira argitara: *Aratoste*, *Urtebarri barri*, *Kukua entzuten*, *Ziñaldari arteza*, *Txi-mistargi barria*, *Alkar aitu obe da alkar il baino*.

Amalau orrexek dira lenengokoak. Beste zazpiak: *Gizon zurrak ondo erabagi*, *Baltz euskelduna*, *Jatorria*, *Or dozu ospea ta betoz diruak*, *Bearrak bearra eragin*, *Ardao-zaleak poltsea galdu*, *barriak dira*, *orain arte argitaldu bakoak*.

Irakurgaitxu oneik gehienak jazorikoak dira; batzuk antxiñakoak, nik neure aitari entzunak, eta berak bere aitari; beste batzuk neuk batu dodaz or-emen neure aldian; beste batzuk neuk asmauta be baidira, guztitara.

Or dozu ba, irakurle, ta ez dautzuela gogait eragingo ba leki, poz-pozik geratuko litzateke, eta zeuri eskerrak egiñik, euroen egille.

KIRIKIÑO



ZERUTAR BAT

Nik orain gomuta ez dodan etxaguntza baten bizi ei zan bigarrenez ezkonduko emakume bat, buru barrua utsik edo beiñik-bein ondo beterik ez eukana bera, irakurleak igarriko dauan lez.

Agertu jakon bein ate ondoan eskeko bat, bere soiñekoak zarren-zarrez danak triskilduta, alde guztietatik zulatuta, oiñetakoak aboa zabalik barreka, buruko txapela bekoipez beterik, erdi-erdian leio biribil bat ebala, bertatik ule pillo bat agiri jakola. Bere arpegi, ule, bizar ta makillariñoko guztiak, danak ziran soiñeko, oiñetako ta txapelaren antzekoak; arlote andiagorik amesetan be (ere), iñok ez leuke sortuko irudimenean.

Arriturik ikusi ebaneko, itandu eutson emakume arek:

— Ene! Nundik urten zara era orretan? Nundik zatoz?

— Zeuta'tik, andrea —erantzun eban Arlotek.

— Zeruetatik zatozala? Zeruetatik esan dozu?

— Bai, andrea, andixek nator.

— Aitearen eta Semearen!... Ondiño alakorik! Orduan, bear bada, ezagutu izango dozu Juane gurea.



Auxe zan bere lenengo senarraren izena. Espetxe nagusitik etorren azeri zarrak laster igarri eban zelako *lелantoni* eukan aurrean, eta bada-ezpadan, jarraitu eutson onen oker-aditzeari.

— Ezagutu ez ostera! Bai ta... adiskide andiak gara.

— Ene ba! Ta zelan dabil bera? Ondo bizi da?

— Gitxi gorabera neu lez. An ezta oi beste bizikerarik. Danak arlote, danak zorriz, ardiz, soiñeko zarrez ta nekez beterik.

— Ai, ene Jaungoikoa! Juane koitadua! Nok uste izan bear olakorik? Biurtuko zara bertara barriro?

— Bai, aldi andirik ez da igaroko ni ara joan orduko, uste dot beintzat.

— Orduan eroan bear dautsozuz gauzatxoren batzuk, nire biotzeko Juane ain txarto bizi ez dadin.

— Bai, bai, pozik be; atara eizuz, atara eizuz gauzok.

Atara ta emon eutsazan, ba, diruren batzuk, soiñeko barriak, toloztuta maletatxo baten, eta ganera gorantzi andi ta ugariak Juane koitaduarentzat.

Zerutarrak alde eginda gerotxoago, agertu zan nundik edo andik emakume aren bigarren senarra. Emazteak esan eutson:

— Bakizu? Juane-n izparrak gaur euki dodaz.

— Arranoa! Nundik artu dozuz, ba?

— Oraintxe emen egon dan gizon bategandik; izpar txarrak ekarri dauz.

Azaldu eutson gero senarrari zelan emon eutsozan Juanentzako, esan diran gauzak. Au entzun orduko itandu eban gizonak:

— Norantz artu dau izpardun orrek?

— Andixe bidetik; zer zoaz egiten?

— Ba... Juane-n barri jakin gura dot neuk be ta, joan bear dot izpardunagaz itz egiten.

— Atera kortatik zalditxo polit bat, ganera igon eta tximistea baizen arin aldendu zan.

Baiña Zeuta'ko espetxetarrak arima zarra euki, ta otu jakon, baten-bat urten litzakela bere atzean; ezkutatu eban maletatxua sasi-arte baten eta jazarri zan bide-zabaletik urteten zan bide zidor baten asieran.

Zaldidunak, eldu zanean, itandu eutson arloteari:

— Adiskidea, ikusi al dozu bide onetan maletadun gizon bat?

— Bai, bide zidor onetatik artu dau, baso zarratu (espeso) erditik gorantz. Oïnak bizkor daroaz berak, eta bere billa ba zoaz, errezki arin ibilliko zara.

Basoa ez zan zaldiz ibiltekoa, ta bere esturan, senarrak emon eutson besteari aberea, esanaz:

— Mesedez, zaldi au eukiko daustazu apur baten?

— Bai; zoaz ardura barik; emen itxarongo dautzut.

Alde egin eban *leloak*; atara eban Arlote-k maletea ta zaldiari igonda, ariñari emon eutson pozarren.

Besteak barriz bota bear zituan gibelak abotik mendi artako bazter guztiak arakatu bearrez, batera ta bestera, atzera ta aurrera, gora ta behera; azkenean arnas-estuka, nekatuta, izerdituta, biurtu zan zaldiaren eske, ta arrizkoa lez geratu zan iñor ikusi ez ebanean.

Ulertu eban guztia, artu eban eroapena, ta joan zan etxera lotsatuta.

Emazteak, eldu zanean:


— Eta, ikusi dozu?

— Bai.

— Eta zaldiari zer egin jako?

— Emon egin dautsot Juane-ri eroateko, bear bada guk baiño aren bear-izan gehiago euki lei-ta.

— Ai, zu lango gizonik ez dago ludi (mundu) guztian. Zorionekoa zugaz ezkondu nintzan ordua!



DEUN (SANTU) IZATEKO BIDEAN

Basetxe baten ei egoan (antxiña) egundo eleizara izan etzan mutil bat. Bere ugazabak bidaldu eban behin Meza entzuten; eta eleizea nun aurkitzen zan ez ekian lez, esan eutson lagun asko sartuko zan etxe andi batera joateko.

Jatsi zan, ba, kalera gure mutil ori, ta eldu orduko ikusi eban eztegu andi bat eleizatik etxerantz joiala; gomutau eban ugazabaren esana, batu zan ezteguaz eta sartu zan danakaz ezkon-barrien etxean.

Iñok be ez eutson ezer esan, senide edo auzokoren batek beragaz ekarri izango ebalakoan; jarri zan mahaian, eta ederto bete eban sabela ango jan-edari ugariakaz.

Pozik biurtu zan etxera, ta aste guztia joan jakon bere ugazabari itanduka ia igandea noiz etorren. Ugazabak erantzuten eutson:

— Mutil, etorriko dok. Itxuraz ondo ibilli intzan, orrenbeste gurari adirazoten dokan ezkerro barriro be joateko.

— Bai, ondo ibilli! Iño... estuan nago igandea eldu arte.

— Kristiñau guztiak orrelakoxeak izan bear laieukiek. Asko ta asko jagozak mutil, mezatarako beti nagi aurkitzen diranak, beste gauzatarako bizkorrak izaten dozak baiña.

— Ez naz ni, ba, orretarikoa. A zan atsegiña nik euki nebana igandean! Eta jente nagia dagola ain gauza ederretarako, diñozu? Siñistu be ezin leiteke.

— Mutil! ori dok ori, kristiñautasuna; oa, oa bide orretatik, eta neuk diñokat deun bat izatera elduko azala.

Larunbata gauean amesetan egin eban mutillak, okelazati, bisigu-erre, ogi zuri, gaztae, pitxerkada ardao ta beste onelango gauzakaz. Itzartu zaneko urten arin ogetik, arrapataka jantzi ta bizkor kalerantz, ao guztia gozotuta, goragoraka atsegiñan atsegiñez.

Kalera eldu zanean, entzun zan mezatarako azkenengo txillin-otsa, ta agaitik ikusi eban jentea arin eleizarantz; berau be arin-arin joan ta sartu zan erdi ingururaino. An gelditu zan begira alde guztietara, ta ikusi ebanean etorten ziran guztiak ur bedeinkatu ontzian sartzen ebezala euren eskuak eta gero arpegira edo (berentzat) aora eroan, ariñeketa baten joan zan bera be, ta beso guztia sartuta ibilli zan ia zatiren bat aurkitzen ete eban; baiña alperrik, an saldea baiño besterik ez egoalako.



— Ederra jokatu jaustiek! —esan eban agin artean.

Geratu zan gero bazter baten ixillik eta adi; ta izkaldia (sermoia) asi zanean, alde-egin eban gogait eginda.

Etixeratu zanean, ba-diñotso ugazabak:

— Ona emen gure kristiñau zintzo au be, zintzorik ba dago iñun!

Mutillak, arpegi illunduaz:

— Gaur ederrak emon daustiez.

— Zer ba? Jo egin aue ala? Ta zegaitik? Mezatara joateagaitik? Zorionekoa az, gauza deunakaitik nekeak igaroten asi azalako; esan neuan nik deun andiren bat izango intzala, jarraitzen ba eutsokan asiriko bideari. Eta zelan izan dok?

— Berandutxu eldu naz gaur, bai?, ta saldea baiño besterik ez dauste itxi. Itxaron dot gero puskatxu baten, baiña ezer bere ez. An aurrean iru gizon, zaku antzeko gauza batzukaz jantzita, ibilli ta ibilli batera ta bestera, nik ez dakit zer egiten; beste bat, ostera, sabai ganean iru milla txilibitu joten; alkarri deadar bat edo beste egiten izan dautsee, ulertu ezin leikean eraz; geroago igon da beste bat lexibontzi (kubo) baten ganera, ta asi da agiraka ta deadarrez guztiz asarre. Auxe ikusi dodanean, “ezer artu ez da nik zegaitik entzun bear joadaz ba olango demoniñokeriak?” esanda, alde-egin dot. Urrengoan, ez naz azkenen joango.

— Ba-dakik nora joan bear dokan ik?... Kortara!... antxe daukak lekurik egokiena, astotzar arraio orrek. Ez dausku azkenean *deun* (Santu) txar-txarrak urten mutil eder onek!

AZERI AZARTUAK OILLOA DAROA

(Jazorikoa)

Errioxa'ko uri txiki baten alkar topau eben, behin, erri bateko euskeldun mutil bik; bata gaizto samarra, ezegaitik ikaratuten ez zana, edozein esturan urteierea laster asmetan ebana, bide onetik naiz txarretik; bestea, barriz, on uts bat, iñori kalterik egin baiño lenago goseak ilgo leukeana.

Ezta zegaitik esan, zeinbat poztuko ziran alkar ikusita; erbestean iñoz bakarrik ibilli danari ezta zegaitik itandu, jakingo daualako zelan nasaitu ta bigunduten dan bihotza erritar bat aurkituaz, antxiñako ezaguna bada batez be. Euskalerrian edo euskeldun artean beti bizi izan danari be ezta zegaitik, bihotzari dagokiozan gauzak ez diralako

errazak azalduten, eta aditu-erazoten bez (bere ez) ondo adituteko sentidu egin bear diralako.

Baiña aldendu gaitez an adarretatik eta goazan gerrira. Gure mutillak, ba, alkarri eta laztanak eginda gero, asi ziran autuan era onetan. Okerrak otzanari (manso) esan eutson:

— A, mutil, nundik nora abil? Ze bizimodu darabik? Nora oa emendik?

Gaztela-n ibilli nok lan-billa; eta ozta-ozta gosez ez ilteko beste aurkitu dodanean, Goikoari eskerrak; eta, beraz, orain etxera naioak. Eta ik, ze bide daroak?

— Neuk bañekik! Ugazaba galduta dabillan txakurra lez naiagok, nora jo ez dakidala; aspaldian ez joat euki lanik, eta etxaukuat (ez daukat) lauzirikorik (ochavo), eta beraz etxaukat nun sartu, zer jan eta etxakiat (ez dakit) zer egin be; augaitik zerbait emotea mesede egin bear daustak, gitxi ba dok be. Errira oanean, eskatu egioek neure gurasoei ta an kitatuko az.

— Bai, ona naiagok ezer emoteko! Artzeko izan ba litzok...

— Zer ba, diru barik ago ala?

— Txakur txiki bat edo bi, geien.

— Au dok izatekoa!... Onak gaiagozak!... Ba, zeozer asmatu bear joagu, mutil; bestelan galduak gaituk.

— Bai asmatu! Zer asmatuko joagu, ba?

— Zer arraio! Gaioazan ostatura, bai?, ta aparria eskatu ta jan yaigoan, eta gero atara daiskuela urdaillean sartu doguna.



— Ik beti izan bear betikoa. Alan jango joagu, baiña kartzelan sartuko gaioezak; eta nik, lotsarien ganean, etxerako bidea galduko joat. Ez, ez, ni ez naioak orretara.

— Dana dala, obe dok kartzelan apalduṭa egon, kanpoan goseak illik baiño.

— Ez, ez olakorik, mutil; onena izango dok jarraitutea bakotzak bere bideari, Jaungoikoaren izenean eskatu ogizati bat baiño ez bada, ta ia elduten garean ni neure etxera ta i lana aurkituko dokan lekuren batera.

— Lelotzar ori! Bildurti ori! Ator neugaz, ta ez adi ezeren bildur izan, neuk jabe urtengo joat eta. Txarrik etorten ba dok, esango joat ik ez daukoala errurik, neuk dana ordainduko nebalakoan etorri azala.

— Baiña, mutil...

— Ze mutil ta zer arraio! Ator bein, eta ez adi ain oiloa izan.

Joan ziran, ba, ostatura; apaldu eben ederto, beñipen bata; besteak ez ainbeste, eban bildurraz.

Apal-ostean ekin eutsen barriketan bertan egozan gaztelar mandazain batzukaz, ta autuaren azkena izan zan musian jokatzea gure mutil biok beste mandazain biri.

Lenengoan ardaoa bakarrik jokatu zan, mandazaiñak galdu ebela berau, ta oneik zerbait berotu ziran, arrotxuak bai ziran eta; jokatu eben gero aparria ta gau artako oge-saria, irabazleak izan zirala onetan be euskel mutillak.

Asarratu jaken auxe mandazaiñai, ta euren barru guztia irakiten eukela, itandu eben, ia dirua jokatu gura eben, eta mutil okerrak ausardi andiaz “baietz” erantzun eban. Beste gizagaxoa, barriz, Gokaxoki edo Purgatorio’ko bat irudian, larri-larri, ao guztia legortuta, ikara-ikara, ta berentzako iñoala:

— Au langoakaz batuten danak, berak daukaz erru guztiak. Nori burura etorri leikeo biar arteko ostatua eskuetan euki ta dirua jokatzea, sakelean txanpon bat euki ez-ta? Jaungoikoak ohea, naste ederrean sartzen goaz!

Ain larri egoan, apal-apal esan eban obe izango zala jokoia iztea, baiña lagunak erantzun eutson:

— Euk gura ez ba dok dirurik jokatu, neuri laguntzea baiño besterik ez daukak: galdu edo irabazi, neuk bakarrik egingo joat.

Itundu eben joko bakotxak laurleko (pezeta) bat balioko ebala, ta orrexegaitik dirurik atara barik ez batzuk ez besteak, lengo babakaz jarraitu eutsoen zorioneko jokoari. Oi dan lez, izan ziran jokoan gora-berak, baiña azkenean mandazaiñek galdu eben ainbat laurleko, ordaindu eben galdu ebena ta ogeratu ziran danak.

Biamamonean banandu eben dirua mutillok, eta alkarri agur egiteko egozala, mutil onak inñotson besteari:

— Ik egiten dokazanak!... Nik igaro naioazan larriak bart!... Ez geunkan, ba, naikoa aparia ta ostatua irabaziaz? Zetarako sartu dira nasteetan? Zer egiteko galdu ba geinduk? Orixe dok bene-benetan, egaz dabillan saia artzearren eskuko txoriari aindutea (aske iztea).

— Ut, etzarie ezetako be ta... lelo ustelok! Nik ez jakiat zetan urteten zarien amandrien gona artetik, arra (palmo) beteko uretan itoten zarie-ta.

— Bai!... Ba, alan jazo ba litzok, ez jakiat eu be zelan ibilliko intzan, eure azartasun (atrevimiento) guzti orregaz.

— Zelan ibilli?... Ibilli eza! Asarrea jokoan ataratea gauza erraza dok, eta zeren edo aren ganean laster urtengo zoan matrakea, ta au neuk eroango naioan burrukaraiño ainbat ariñen, eta argi ta edontzi (baso) ta pitxer ta mahai ta bazter guztiak aidean ibilliko zoazan, olango jazokeretan izaten dan lez. Gero...

— Gero... guk ederrak artu bear, gu baiño gehiago ziralako, ta ganera kartzelara...

— Ze kartzela gero? Ni asiko nintzoan orduan deada-
rez neu niñoiála alkateagana egundoko ariñen, ango nastean

gerrikotik poltsea ostu eustela ta an lapurren batzuk egozala ta...

— Mutillak!

— Ikaratuko naioazan apurren bat, ba ostuta-jabeari olango gauzak ez joakazak ondo, ezta mandazaiñai be euren bidea atzeratuteko gauzarik; eta neure asmoaz urtengo gintzoazan ezer be ordaindu barik gitxienez, ganera eskupekoren bat ixillik egotearren atara ez ba geinduk.

— Ez au i ain arin goseak galduko, daukuazan azerikeriekaz!

— Zer egingo dautsok, ba? Gibelak euki bear izaten dozak errimeak bazterrera urteteko; itoten dagona ezin dok ibilli begiratzen alboan agiri dan untzia gorituta dagon ala ez.

AURRERAPEN IKARAGARRI BAT OSAKUNTZAN

(Jazorikoa)

Beiñola Madrid'eko akeitetxe (kafetxe) bateko mahai baten inguruan batzen zan ikaslari (estudiante) pillo bat, euren artean lagikari-geiak (de abogacia) eta osalari-geiak zirala gehienak, danak *vaskongaduak* bi edo iru *euskeldun* kendu ezkeru.

Esan bearrik ez dago barriketea eurrez (en abundancia) ibilten zala batzar artan. Gau baten atara eben osalariok eta lagikariok matraka galañta, areik euren ogibidearen alde, oneik eurena goratu bearrez, bide batez alkarri inun diran txakurkeriak arpegira jaurtinda.

— Zuek drogeaz bizi bear izaten dozue ta...

— Zuek, ostera, osagai berenozkoekaz ta gañibeta (cuchillo) antzeko tresnakaz, zenbat gizajo ez ete dozue bidaltzen beste alderal...

— Lumadun gizonak erpe gaiztokoak; ludian drogarik ez ba lego, lagikariak goseak illik.

— Zuek aiña edozein atsok daki; joaten zarie astozar bat baiño motzago ondora, artu an dagonaren eskubiturra, buruari alde batera ta bestera eragin, ipiñi paper txatal baten urrengo burura jatortzuen txarrikeriren bat, lan-sari ederrak kendu, ta or konpon, osatzen ba da ondo ta ilten ba da, lurra emon daioela ta kitu, zueri zer?

Onakoxe irain garratzak alkarri jaurtitera eratzi eben euren eztabaidea.

Alboko mahaian egoten zan zaldun urtetsu bat, ule ta bizar zuriduna, koronel zana edo izana, morroiak esaten ebenez; ikaslariak argepiz ezaguna eben eta agur egiten eutsoen bere mahaira etorri edo kanpora joaten zanean, akeitetxean auzokoak ziralako aspalditik.

Gazteen eztabaidea garratzuten asi zanean, jagi zan alako baten zaldun ori ta begirune andiaz esan eban:

— Iñok deitu ez daustan lekura nator, eta azartu (atrever) naz orrenbesteraíño, ustea dodalako parkatuko daustazueta, bada nik zuen aita izateko beste urte dodaz, zer-edo-zer alkar ezagutzen dogu, ta neure bizitza luzean gauza asko ikusita nagonez, argi apurren bat ekarri daiket zuek darabiltzuen eztabaidara.


Mutillak, kapelak erantzita, euren erdian jesarri eragin eutsoen, esanaz:

— Jauna, ez daukazu zetan parkamenik eskatu; geuk dagitzuguz eskerrak etorri zaiakuzalako.

Agureak eta ikaslariak alkarri labankeri andiak eginda gero, asi zan a itzaldi bat egiten, guztiz polito, danak poz-
pozik entzuten eukazala, aora begira.

Lenengo azaldu eban lagia (legea) zer dan, onen jato-
rria, bere bear-izana ludian, zenbat eta zelako onurak
dakarskuzan, eta azkenez, zein goratuak izan bear eben
lagiak ikasi ta aztertuten izentauta dagozan gizonak.

Gero, osalarien alde be gauza guztiz ederrak esan
ebazan; osasuna dala gauza bat bera galdu arte ez dakiguna
daukan balioa; osakuntzeak egiten dauala, ez bakarrik
gexotasunari igesi eragin, baita gatxa ekarri leiken gauzea
ondo ezagutu ta aldendu eragin be bai, *Higiene* deritxon
eraz, eta alan aberriak edo naziñoak osasuntsutu ta gogortu,
ta edozein aurrerapenetako gertu (prest) ipiñi, gauza jakiña



dala ba osasun bagako erriak, ez indarrerako, ez adimen gauzaterako daukala ganorarik; eta onetariko asko esan ebazan jas andiaz.

Mahai arek irakastola bat irudian orduan, eta irakasle bateri legez entzuten jagokozan adurra (baba) dariola mutil guztiak agureari, papao batzuk legez.

Jarraitu eutson onek bere arloari, gitxi gora-bera, onetara:

— O!, arrigarri ta entzungarriak dira izan osakuntza gauzetan urteokaz egin diran aurrerapen, iñoiz amesetan be gogora etorri ez jakezanak gu baiño lenagokoei! Ainbestean dirala-ta, azaldu bear dautzuet, zuen baimenaz, ain ardura andiz entzuten zagozen ezkerero, neuk Paris'ko gexotegi baten ikusi neban osakuntza bat.

— Bai, bai, pozarren entzungo jatzu, jauna; jarraitu egizu —iñotsoen mutillak.

— Tira, ba; eroan eben egun baten gizajo bat iztar-azurra ausita, burdi andi baten txirringeak azpian artuta edo; gexotegi artako osalari nagusiak eta bere urrengokoek arduraz begiratu ta ikusi eutsoen iztarra gizon ari: gero asi zan bakotxa bere eretxia edo aburua adirazoten eta gehienak iñoen ankea kendu bear ko jakola bizia atara guña bazan; nagusiak orduan onetara itz-egin eban:

— “Iztarra ebagiteko astia gero be eukiko dogu-ta, bada-ezpadan lenengo ikusi bear da neuk aspaldian daukondan uste bat; gizajo au anka bagarik bertan-bera izten ba dogu, ilgo da, ankeaz bizimodua kenduko dautsogu-ta”.

Uste ori izan zan ondatuta eukan iztar-azur atala kendu, ta ordez txakur andi baten azurra ipiñi, abe edo zugatzai mentua ezarten jaken antzera, ta ikusi ia oratuten eutsen azurrok alkarri.

Egin zan, ba, ta ez dago zetan esan zein ederto zainduko eben gexoa osalariak; ba-joiazan egunak, eta geroago ta obeto joian gizona, iztarra osatu jakon azkenean, oetik jagi zan eta ondiño makal, baiña ankea lurean ipinten eban, mentua lortu zan, beste bear-izanik ez egoan indarra artutea baiño gizona osoro geratzeko.

— Orrek dira gauza miragarriak ikusten doguzanak gaurko egunetan! —iñoen arrituta gazteok.

— Baiña, gure gorputzean, atal guztiak bardingeak (diferentes) izan arren, ain alkartuta dagoz danen artean gauza oso bat egiteko ze, batak ezer daukonean, besteak, danak ez ba dira be, batzuk beñipein, sarritan okertu ta moteldu ta gexotuten dira; au da osalariak *konplikaziñoa* esaten dautsena. Auxe jazo zan an be; guntzurrunetara ta puxikara jo eban gatxak, ezin eban txixik egin, puxikeak estanda egin bear eutson gizonari ta bizia galdu bear eban, laster osabideren bat artu ezik.

Osalariok ebiltzan gau ta egun zoratu bearrez, zer ete zan ezin igarrita, liburu guztiak aratuaz ia zer alkartasun eukan azurretako gatxak guntzurrunekaz: itxaropena galtzen asi ziran, ez ekien zer egin.

— Eta, il zan gixajoa?

— Ez; beste osalari entzute andidun bati dei egin eutsoen. Onek itandu eban zer eukan eta zer egin jakon;

azaldu eutsoen guztia, ta erantzun eban: “Ia, ekarrizue ona gizon ori”. Eroan eutsoen, ba, ta besotik eldu ta orma ondora eroanda agindu eutson:

— “Altzaizu ankea gora, ia txixik egiten dozun”.

Parra-parra, ederto egin be. An egozan guztiak ikaratu ziran, eta benetasun andiaz esan eban osalari ospatsuak:

— “Txakur baten azurra ipiñi dautsozuen ezkerro, zelan arrano gura zenduen, ba, gizon onek bere bearra egitea, ankea jaso ezik orma baten ondora urreratuta?”

Au entzunaz asi ziran guztiak barreka, ain benetan, eurai bai txis-eragin eutsela agureak bere ipuiñaz. Berau, oster, piperra baiño benago (serio) geratu zan.

Berez gogo onekoa zalako edo, mutillak bakean ipintearren edo, ez ekien oneik zegaitik alango gizon urtetsu agurgarri bat joan jaken barregarrikeri aregaz.

PERU MAKUR

Peru Makur agure gizajoa, zarren zarrez ezetarako gauza ez zalako, emendik destaiña, ortik bekoki illuna, andik agiraka garratza, ta beti goseak illik, guztiz txarto bizi zan bere seme ta errenagaz, eurok etxeko txakurrari aitari baiño jaramon gehiago egiten eutsoela.

Ain atsekabe ta ain errukarri bizi zan eguretxuaren belarrietara eldu zan bein albista edo izpar au: Erregeri lapurretan egin eutsoela, txingi edo pitxi eder asko ostu eutsoezala, ta sari andi bat aginduta egoala lapurrak nortzuk ziran agertzen ebanarentzat.

Peruk bere kolkorako esan eban: “Araxe joan bear joat, eta iru edo lau eguneko jan-edana eskuratuko joat edozelan be, ta gero zuzitu nagiola gura ba joek... Niri zer? Zer galduko joat, ba? Ez asko, gaur darabildan bizimodua baiño eriotza berbera asko txarrago ez dok-eta”.

Esan ta egin, itzi semea ta errena (pozarren oneik agurea etxetik aldendu jakenean), artu Errege-uriko bidea, ta ba-joian txairo ta bizkor gure Peru, bere baserritar jantzi zar ipingitsu (remendado) nabarraz, Jaunari erreguka alik ondoen atara egiala arazo artatik.

Errege ta onen ingurukoen aurrera agertu zanean, bere arpegi tximur zimela ta bere soiñeko marroxak (desaliñado) ikusi orduko asi ziran guztiak barre purrustadaka; batak iñoan: “Zer dakar kaiku zar onek ona?”. Besteak: “Au, bere erri koskorreko txiñel nagusia edo da”, Onek: “Gizonak, *astronomu* onek izarrai begituta edo igarriko dau, ta katalajo andi bat ekarriozue!” Arek: “Eskuma alde nundik nora dan ete daki gero beronek!”.

Txoriak mozoloa erabilli oi daben lez, irri ta barre erabillen gizajoa. Erregek, orraitño, barreka-barreka esan eutson: “Aitaita, adorerik ba al dozu artu dozun zeregiña bide onera eroateko? —Bai, jauna (erantzun eban), emon bekit iru edo lau eguneko epea, ta zerbait egingo da. —Baita emongo jatzu epe ori, ta oraintxe aginduko dot neure jauregi-ko eskaratzeko morroiak jan eta edan emon dagitzuela.

Joan zan, ba, Peru Makur eskaratzera, zokondo baten mahaitxo bat ipiñi eutsoen, eta morroi batek bazkari ederra eroan eutson; argitu jakon gogoa agureari, ta urdailla ondo bete ebanean, esan eutson bere buruari, bazkari bat arrapatu

ebala gogoraturik: “Bat orraitik, eskuan jaukat, onek ez jaustak igesi egingo”.

Morroia adi-adi ta zurt begira egon jakon zatitxo baten, eta lagunakana eldu zanean, zurbil eta arnasa barik azaldu eutsen agureari entzundakoa, ta ikaratu ziran guztiak, eurak ziran ba lapurrak eta. “Agure kaiku orrek igarri egin ete jauskuk ba? —iñoen euren artean—; aparia beste batek eroan daiola, ia zer urteten dan”.

Alan egin eben; orduan be agureak aparia amaitueran, esan eban: “Bi jausi dozak; biar ta etzi jausiko dozak besteak be, ta ez naioak ain txarto”. Agureak esakun onetan janaldien kontua erabillan.

Morroia joan zan arin besteakana, eta esan eutsen:

— Arraiya, mutillak! Gureak egin jok, galduak gaituk! Auxe ta auxe esan jok agure demoniño orrek, dana jakik.



Larriru ziran mutillak, eta azkenez itundu (convenir) ziran agureari itz egin bear jakola ta beregaz aitu, ia onean zuzendu al eitekean zoritxarreko arazoa. Urreratu jakon, ba, agureari morroien artean buru egiten ebana, ta autortu eutson eurak zirala Errege-ri ostu eutsoenak, eta gertu egozala atzera emoteko ostu ebena; baiña, Jaungoikoarren, ez egizala salatu, bestelan urkamendira bear ebela-ta. Peruk esan eutson ezereen bildur ez izateko, ardura txikienik barik lo egiteko, ezetara be ez ebazala agertuko-ta.

Biamamonean Peruk eroan ebazan Errege-ren aurrera txindi edo pitxi guztiak. Errege ta bere ingurukoak aitearen-ka izten ebazala. Ak itandu eutson Perúri:

— Eta lapurrak, nortzuk dira ba?

— Ezin esan neikeo, jauna; neurre itza emon dautset ez dodazala agertuko-ta.

— Baiña zuzentasunak aginduten dausku gaizkiñak (malechores) zigortatu egin bear dirala.

— Egi andia da ori, jauna; baiña damututa dagozan ezkerero, osturikoa biurtu daben ezkerero, Errege guztien Erregeren parkamena dauke, ta, Ak parkatu ezkerero, berorrek be parkatu begioe, jauna.

— Ez dago txarto esanda, eta bai poz andiaz, aitaita, parkatzen dautset. Orain beste gauza bat igarri bear daustazu: nire emaztea laster sein (ume) egiteko dago ta esan eiskuzu mutilla ala neskea izango dan argitara urteteko dagon seintxua.

Peruk erantzun eutson Erregiña ikusi bear ebala orretarako, ta areto (salón) andi zabal baten, lagun aldra andi baten

erdian Peru Makur gizajoa estu ta larri egoan zer esan ez ekiala; baiña zer-edo-zer esan bear eban ta, eskatu eutson Erregiñari, mesedez, ibilli eitela alde batera ta bestera areto artan; ibilli zan, ba, ta Peruk esan eutson Erregeri:

— Jauna, gauza zailla da igarten... ez nago ziur; aruntza doianean, mutilla iruditzen jat; onuntzakoan, ostera, neskea.

Peru-ren zorionerako, andik iru edo lau egun barru erregiñak ume bi egin ebazan, bata neskea ta mutilla bestea. Nok adirazo an izan zan arritasuna? Nok azaldu noraiño goratua izan zan Peru Makur kaikuaren jakindasuna? Len barre purrustadaka artu eben agure zimela, orain Seneka berbera euren artean agertu bailitzan, lotsa ta itzal andiaz begiratuten eutsoen.

Larri egoan baiña gure Baserri; Errege ta enparauak au ta ori ta bestea igarri egiala-ta asiko jakozala, ta bide onetan, laster jausi bear ebala ikusten ebalako.

Alantxe, berak uste izan eban lez asi jakozan, eta Peruk bere larri-aldian urteiera polit bat asmatu eban: Erregeri *sermoitxo* bat zuzendu eutson, bertan beste gauza askoren artean iñotsola:

— Gogoratu egikezue, jauna, nik neurez ezin izan dodala euki indarrik edo birtuterik egin dodazan gauzak egiteko; gogoratu egikezue, Jaungoikoagandik euki dodala indar ori, eta Jaunak bear-izana danean bakarrik emoten dauala bere eskerra (graziā), ta ez gizonen jolaserako; ez Jesus gure Jaunak ez bere jarraille izan diran santuak egin dabe iñoiz miraririk munduaren jolagarrirako; ez naz ni santua, baiño ori gora-bera, santuen bidez mirariak egin dauazan lez, ni pekatari onen bidez Jainkoak berak egin dau

zuek nigan ikusi dozuena, ta orain jolasbidean igarkizunakaz (adivinanza) asten ba gara, Jainkoa zirikatzea izango da, ta pekatu lotsagalduko ori egin baiño len, obe izango da ni neure etxera joatea, berroren baimenaz.

— Gizona! —erantzun eutson Erregek—, igarle ona zara, baiña ez zara sermolari txarragoa. Bai, zuzen zagoz. Ederto esanda. Eutsi, ba, zeure zartzaroa ainbat ondoen igaroteko lain, eta zoaz Jainkoaz.

Au esanaz batera, Erregek ziskukada (talega) urrea emon eutson. Biurtu zan agurea baserrira, ta seme, erran, loba, lengusu ta laugarren edo boskarren maillako senide guztiak, auzokoak, erritar guztiak txiki ta andi, danak alkarren leian, berari eder-egiten eutsoela (ziskukada urrearen millagruak), eztula baiño zarrago egin arte ederto bizi izan zan Peru Makur agure zolia.

ITOXURAK ZIÑALDARI

I

Prakerre ta Motrollo esan, eta txakurra ta katua esan, Arribil'tarrentzat gauza bardiña zan, ain zan andia areik euken alkar ikusi eziña.

Ezin izaten eben alkar artu ezetan be; naikoa zan batak eguna zala esatea, besteak gaba zala esateko, beti batak baietz eta besteak ezetz. Pelota jokoan, eta bola-lekuan, eta auteskundietan (elecciones), edozetariko jokotan aurrez-aurre beti aurkitzen ziran. Errikoak esaten ebenez, ardandegian bertan be, batak ardao zuria eskatzen ba eban, besteak ardao baltza. Alkarren ondoan, urrumaka ta uleak astinduta, otso bi lez egon bear beti.

Euren taiu ta izakeretan be ezin ziran izan bardingea-goak. Prakerre, txakur jezarri (relleno) bat baiño andiagoa ez zan; gorputzez argala, samaz luzea, arpegiz estua, sudurra luze ta makotua (curvado), begiak txikiak eta barru-barruan sartuak, bizarra mietza, ta burua txikitxua. Bizkorra zan bera, dantzari nekegabea, barritsu andia, itz utsa; pirri nausienetakoa, leku guztietan lenengoa beti izan gura izaten eban, eztabaida danetan orioaren antzera berak igon bear iñok baiño gorago, ta onetarako bere indarrak laguntzen ez eutsoenez, gibel gaizto ta demontretakoa zan, eta bada-
ezpadakoan, aizto (cuchillo) luze bat gerrikoan erabilten eban.

Motrollo, barriz, erraldoe andi ta zabala zan; burutzar ikusgarria eban, ule sapa (guedeja) baltz zarratu bategaz estalduta kokotetik asi ta begien ur-urreraiño; bepuruak, matraillak, sudurra, ezpanak, andi ta trauskillak ebazan, sutegiren baten maillukadaka egiñak irudiela. Bizarra be zarratua, buruko ulea lez, azala baltz gorrizkea, begirada itzala, abotsa lodi ta astuna. Oso indartsua zan; itzak, gitxi ta neurtuta lez jaurtiten ebazan; matrakan nekez asten zan, baiña bein asi ezketiño, itz asko egin baiño lenago bere besoetako gabi (mazo grande de ferrería) astunak erabilten ebazan, eta orduan bildurgarria zan.

Mutil txikitxuak zirala erne zan euren artean gorrotua. Zetatik? Batek daki!

Gizonen biotzetan azi txarra ereitea ez da arritzeko; euretan landara gaiztoak ain erraz ta ugari urteten dirala ikusirik, esan leike azi barik berez jaioten dirala, edo bertan dagozan erro zatiren batetik dakarrela jatorria. Azitik ba datoz be, nok galerazoko dautso aziari norberen soloan

jausten? Aizeak dakar, edo aberetxuren batek dakar, edo bai dator arerioa gabaz ta ereiten dau.

Gero, jaio daitezanean lanak egin bear dira! Orduan ondo ikusten dira! orduantxe bai eskuz edo atxurrez atara bear dira ta garbitu bear da soloa, landara onak emon dagiezan igale (fruto) eder zoriontsuak!

Augaitik itandu bear da, zelan geitu zan mutillen gorrotoa, ez zetatik erne zan.

Prakerretxo ta Motrollotxo txikitan edozer ezerezkerigaitik burrukan ibiltzen ziranean, zenbat bidar jazo ete zan urrean egotea gizon pilloren bat, eta onek, mutillak banandu ta bakean ipiñi bearrean, amorratu ta sututen ebezan, eurai begira alditxo bat emotearren, onetariko esakerakaz:

— Ia, Pakerre, gogor, arraioa; ez dagiela esan makalak gareanik bere auzotegiarrak (convecinos)!

— Ia, Motrollo, ez ukatu, eurea dok ori-ta!

Noz-edo-noz burrukea amaitzen eben, nekatzen ziralako, ez euren emorrua gitxitzen zalako, berau erakusten ebela begirakun ta esakun gaiztoekaz, ta etxeratzen ziran soiñekoak loitu ta urratuta, sudurretik odola dariola, ta arpegitxoetan baltzunen bat edo beste ukabilkadakaz egiñak.

Etxera eldueran, an izaten ziran garraziak; baktxaren amak, burura esku biak jasota, samako zanak asarrez andituta, begiak txingarrak irudiela (que parecían), urteten zan semeagana deadarka.

— Nok ipiñi au era orretan? Nor izan da, neuk neure atzamarretan ito daidan? Beti izan izango da urlia (fulano)

txakurtua! Oraintxe, geroko itxi barik, joango naz taraska (desenvuelto) orreri esatera azikera ohea emon dagiola bere txakurkumeari. Bai ta laster gero!

Alkar aurkitzen ziran emakume biak eta euren aoetatik, kerexak bata-besteaz katigatuta otzaratik lez, urteten ziran iñok asmatu ezin leikezan itz zikin, irain eta txakurkeriak; sarri, ondoren, alkarri oratuta lotsagarritzko burrukea egiten eben, eta dana mutikotxoan aurrean!

Au ezeze, gero, gurasoekandik artzen ebezan onu (kon-tseju) deungak, amorruez emonak:

— Oillanda demoniño ori! Iñoz agaz burrukan asten ba az, ez akit ondora etorri burua austen ez ba dautsak, ezpabe (sino) neuk saietsok berotuko daustadaz, epel, irabio (me-neo) bako, ez dakit zelako ori.

Bertan-bera itziaz bakarrik, soloa jorratu ta zainduten ez bada, geituaz ta geituaz ba doaz bedar galgarriak, eta azkenez, ereindako azietatik datozen landara onak itoten ba dabez, zer ez ete da jazoko bedar txarrak ainbat lasterren atara bearrean, eurai lagunduten ba jake?

Jakiña izan bear leuken eta izan be izango zan, solo edo beratz, igali ta lora ederrez betea, larra bat egingo da, sasia ta otea ta arantzea baiño besterik ez daukona.

Zelango zenbatza (cuenta) emon bearko eben Eraba-gille Nagusiaren aurrean Prakerre ta Motrollo'ren guraso ta errikideak, aizea emon eutsoelako aren bioztxueta ixetu zan gar txikiari, putz bategaz itzali eitekenari?

II

Arribil'go ardandegian, igande goiz baten Meza nagusi ostean, gizon taldetxo bat egoan euren eztarri egarrituak ardao zuriz bustitzen. Gehienak lurgiñak (labradores) zira-nez, autuan eragoioen (se ocupaban) eguraldi ta baso ta solo ta abere ta onetariko gauzetaz. Goenean gazte batek aitatu eban arratsalde artan Arribil'dik ez urrin egin bear zan erromeria.

— Mutillak, errosario ostean erromeriara joan bearko joagu dantzaldi bat egiteko.

— Joan ez ostera? Ori zetan esan bez (bere ez).

— Baiña itunduta (comprometido) zagoze neskatillekaz?

— Bai; Prakerre, ain ospe zalea dan lez, or ibilli dok batzui ta bestei itz egiten, gaur andienetaikoa egin bear dala-ta.

— Errotabe'ko neskatilleari be itz egin izango jautsok orrek.

— Baiña, mutillak, egia ete da Motrollo be neska orren atzean dabillega?

— Egia dok, bai.

— Andia dok eurena, orraitino! Orain arte ez joek euki ba sekulan gauza baten naia, ta orra! iñoz alkartu dozak nai baten, iñoz baiño asarreago geratzeko.

— Eta, zeñi arpegi emoten jautsok neskatilleak?

— Ziur ezer ez jakiagu, baiña zurrumurrua dok ortik zear, Motrollo'gana daukola zer gehiago.

— Arraietan, ederra be ba dok-eta!

— Ez dok aingerua, baiña beste erkiñaren aldean gizon-itxurea jaukok beñipein.

— Bai, gizon-itxura ederra! Arimea aldendu ezkeru, naiz kanpotik naiz barrutik ori ta astotzar andi bat aren baten.

— Ba, Prakerre'gaz ezkondu edo tximiño bategaz ezkondu, ez jakiat neuk zer gura izango neuken gehiago.

— Arratsaldean an izango dozak biak.

Orduan, ardandegian egoan zar batek esan eutsen mutillei:

— Jaungoikoarren, eurokaz arduraz ibilli zaiteze, ezbear bat jazo ez daiten danoen lotsagarrirako.

— Gogoan artuko dogu zeuk diñoskuzun ori, Juenanton; baiña ez dogu uste burrukaldi ta zartada batzuk baiño gehiago jazo leitekenik.

— Ez jakiat, ba. Neskatillea Prakerre-gana bai legok, bear bada Motrollo errazago baketuko litzaket, bestea baiño gizonagoa dalako; baiña esan dozuen erara gauzak dagozan ezkeru, beste kontu bat da. Prakerre'k, txikia ta ziztriña dalako, burla egin dautsoela uste izango jok eta zoratuko jakok, eta edozer ezbear egiteko bideak artu leikezak.

— Izan leiteke; baiña izanda be, zer? Aiztoa ba daroa be, Motrollo ez da aren bildur, belarrondoko bategaz urri-

ñera bidalduteko bear dan baiño zazpi bidar indar gehiago dauko-ta.

Arratsaldean, erromeria zan lekuko zelaitxoia betebeterik egoan albo-errietako gazteriaz; an ebiltzan auts artean, arpegiak gorri-gorri ta izerdia tantaka erioela, eguzkiak eta ardaoak eta eurak erabillen arloak berak emoten eutsien beroagaz, arnas-estuka nekearen nekez, baiña ori gora-bera, danak barreka ta pozarren.

Prakerrek auresku bat egin eban, erabilli ebazala iñun diran anka-biorkadak eta kirimillak (tijeretas), guztiz bizkorra zan-eta; lagun guztiak berari begira egozan, eta Arribil'tarrak zokan pizkat arrotxo ebiltzan alako dantzari urtena eurendarra zalako. Errotabe'ko Marikruz ekarri eutsoen



lagun, eta zokan sartu baiño len, arek izan ziran txotxoloke-riak Prakerrek egin ebazanak neskatilleari eder egitearren! Jaurti eban bere txapel gorria Mariktuz'en oiñetara, ta asi zan artazika (piruetas) ta morapillaka bere anka bizkorrakaz txilibituaren soiñu arin bategaz lagunduta, atzera ta aurrera, ta gora-goraka, ta milla jira-biraz; artean, neskatillea irri-barreka, pozarren, nasai-nasai ta arro egoan —zelan ez?—; ez zan emakumea bestelan izango! Prakerrek au ikusiaz bere artean au iñoan: “Ze Motrollo ta ze morrolo! Aurreko oni kendu dautsot bihotza; lora kutun au ez dago astotzar aren ezpanetarako”. Ta gero uste au bide zala, poz-pozak erdi zoratuta, txotxolotuta ibilli zan arratsalde guztian. Txandea berea izan zan.

Motrollo, barriz, erreten egon zan, eta bein baiño sarriago ez eban asko bear izan besteagana joan eta bertan ostikoka eiotuteko.

Etixerantz abiatu ziranean gure Arribil'tarrok, Prakerrek lortu eban Marikruz'egaz bakarrean itz egitea; bere bihotzeko ondoezak agertu eutsozan, agin-ataratzaille batek baiño barriketa gehiagogaz, otzan-otzan, bildotsa baiño apalago, neskatilleak, eskerrak egiñaz, itz eta itz, adirazo eutson berandu eldu zala, edo besteren bategana itzez lotuta aurkitzen zala edo onekoren bat; orduan bildotsari uleak zerbait astindu jakozan eta otsotuten asi zan; ekin eutson orraitioñu autuari, neskeari atara gurarik ia nor zan itza artuta egoana, baiña neskeak ez eutson esan gura. Onek, autuari ebagi bat emonaz, bere lagunakaz batzeko guraria agertu abanean, Prakerre osoro asarratu zan, eta esan eutson:

— Ori ba dakit nik nor dan, ez dozu esan gura baiña.

— Ba dakizu, ba... zetan zabiz jakin gurarik?

— Ziur jakitearren, zeure aotik entzutearren; baiña, itxuraz, orban edo zetakaren bat euki bear dau zozo orrek, argitara atara gura ez dozunean.

— Orbanik ba dauko edo ez ba dauko ez da iñoren ardurea, neurea baiño.

— Jakingo dozu, geroago jakin bear dan gauzea da-ta, Marikruz, eta nik susmetan dodana bada zure senargeia, neuk abinduten (prometer) dautzut ez zareala beragaz ezkonduko, naiz-ta galerazoteko ludi guztia erre ta kiskaldu bear ba litz be.

— Jooo...su! Ez da orrenbeste izango, orraitaiño; zu zaran gizonaz guzti ori egitea gehiegi dozu.

Auxe, irri-barrez esanda neskeak igesi eutson bere lagunekana. Prakerre geratu zan odola irakiten ebala, aoa legortuta, bihotza zartadaka, arnasarik artu eziñik, ikaraka, bere aotik jaurti gura ebazan irain ta biraoak ezin oguzita (pronunciar); sartu jakon bihotzaren erdian asmo deunga zitala; noz-edo-noz asmo au bete al izango ebanaren itxaropenak zerbait nasaitu eutson bere barrua, ta batzau (reunirse) beste gazteakaz. Amorrua sakonago sartu jakon, errira eldu baiño lenago Motrollotzar ikusiaz Marikruz'en ondoan, eta au ostera udabarriko goiz bat baiño arpegi eder ta argiagoaz.

Arribil'era eldueran banatu ziran erromeriakoak aldraxtoetan, eta ba-joiazan bakotxa bere auzotegi aldera abeska ta santzoka; aldratxo onetan emakumeak ziran gehienak; gizonezkoak, ardandegian sartu ziran gehienak, azkenengo zurruta edateko.

Prakerre ta Motrollo be an ziran. Laster sortu zan matrakea bien artean, eta Motrollok besteari emon eutson bultzakadeaz txirikillea (estornela) lez zear bota eban jarleku ta mahai artera; jagi zan au suge zitalaren amorruez, edegi eban aiztoa, ta ezpanetatik bitsa dariola ba-joiari Motrollo'ri sartzen; onek aulki bategaz jo eban burutik bera ta Prakerre ostera be lurrera; orduan sartu jakon Motrollo, aiztoa kendu ta beragaz bertan triminduteko (magullar) usteaz, baiña ezin izan eutson kendu, katua lez aginka ta ostikoka egiten ebalako. Guzti au igaro zan aida batean; banandu ebezan, Motrollo esku ta besoetatik odola dariola, burrukan ebagi batzuk artu ebazalako, ta Prakerre buruan anditu ta zauri batzukaz, besteagandik arturiko blaustadakaz. Onek, gorrotoz bizi-bizi begiak beteta ebazala, esan eutson Motrollo'ri arrapauko eban lekuan garbituko ebalala.

Alkateak au entzun ebanean (zer edo-zer berotxua zan bera), esan eutson:

— Zer garbitu edo zer arraio? Nor garbiti bear dok ik, demoniño orrek? Etxera ixil-ixillik, eta laster joan be gero, aizto emen itxita, katu txatxar ori!

Prakerrek, azkenengo itz ok entzun ebazanean, alboan eukan edontzi bat artu ta jaurti eutson burura alkateari, ta odoldu eban; orduan, danen artean oratuta, amorratuta egoalako, pizti basati bat izan balitz lez lotuta, espetxera eroan bear izan eben.

III

Erromeri eguneko jazoerak ondo ospatsuak izan ziran erri txiki aretako biztanleentzat.

Jazoera arek bere ardurapean artu zituan Epaikariak, eta epaitu eban burrukari biak espetxean gerizpea artu egiela alditxo baten, eta gero Prakerre erbesteratu eitela Arribil'tik lau legua ingurutik at (fuera).

Epaia bete eben. Motrollo ezkondu zan Marikruz'egaz, ta maizter edo errenteru jarri zan erriko basetxe baten. Prakerre joan zan bizitzen andik bost legua bidean egoan erritxo batera, ta an ipiñi ebazan bizargintzea ta zapatagintzea.

Arribil onan bake-bakean geratu zan; bertako notin (pertzona) zentzundunak ez eben asko bear egun artako odol-ixurtzea ia bedeinkatzeko, bere ondoren, iñoren kalte andi barik, alako bake dontsua ekarri ebalako; baita uste eben, Motrollok eta Prakerrek alkarregana euken gorrotoa, urteetan bigundu ta azkenean urtu egingo zala. Edozelan be, ondo zan bata besteagandik urrin eukitea.

Orraitiño Prakerre beti Prakerre, ta Motrollo beti kirten andi bat izango ziran, txikitatik ekarren laztasunagaitik; azikera txarra izan dauan zugatza, lenengo urteetan okertu zana, ta alan andi ta gogorra egin dana, nok zuzendu? Jaungoikoak bakarrik bere almenaz, beste iñok ez.

Baiña Jaun Irakasleak bear bada orrelako abe (arbusto) okerrak zuzendu barik izten dauz askotan, guztioi ikusi eragiteko zelako ondorenak dakazan azikera gaiztoak, eta beraz ikasi daigun zelan eta zenbat umeak zaindu bear doguzan okertu ez daitezaz, eta iñoz oker-bidean ikusi ezkerro, zuzendu daiguzan, artarako eskubiderik ba daukogu, ta euki ezik, beñepein ez emon indarririk artu daben bide deungatik (malo) jarraitzeko.

Gizon egin zanean gugaitik, Berak irakatsi euskun Bere txikitxoan aurrean galbidea (escándalo) emongo eutsen gauzarik egin baiño obe dala samatik errotarri bat estutu ta itxasora bota izatea. Guretzat Bere esana bakarrik naikoa izan bear leuke bide zuzenetik ez urteteko, baiña zorigatxez ez da alan, eta Jaun errukitsuak jazoerakaz egunero Bere agintzak gomuta erazoten dauskuz. Ludiko jazoera guztietan, ondo begiratu ezkerro, ikusi daukeguz gure Jaunaren irakaspén ederrak.

Prakerre'ri gorrotoa ez jakon gitxitu. Estura andian bizi zan; berak eban errua, ezkondu barik eta ganora barik, ardanetxeetan, erromerietan, eta alakoxe lekuetan aldirik gehiena emoten ebalako; baiña berak, estutasun onen jatorria ipinten eban Motrollo'gaz euki eban asarrean. Igaroten ebazan atsekabe guztietan bihotza garrez beterik esaten eutson bere buruari:

— Axe izan dok ire ondamendia, axek galdu au sekulako, ez intzan aurkituko orain agoan eran Arribil'en bizi izan ba intz.

Augaitik lenagoko gorrotoa bizi-bizi egoan bere bihotzean, eta ez bizi erkiñaz (enclenque), ta bai sendo, gogor ta iñoz baiño andiago.

Motrollok, bere emaztearen nebakaz asarrerén batzuk ebazan, ogasun (bienes) izkien batzuk zirala ta ez zirala, ta ain latza ta kirtena zan lez iñoz ezin eban beretik atara ezetara be. Euren artean asko garrastu ziran, eta bein edo bein urten zan urten bear zana a lako kirtenaz eztabaidetan ibilli ezkerro, berak eta bere koñiatu batek alkarri eskuak ezarri eutsoezan, eta Motrollo'k ebazan indartzarrakaz

apurtu eban bestea ukabilka ta ostikoka, ta gehiagora be elduko zan banandu ez ba lebez egin. Koñatuak, lagun aurrean, ori lako jazokunetan (sucos) asarrearen beroak erazoten dauazan itzakaz Motrollo zematu eban.

— Au ordainduko daustak ba, astotzar, kirten, arraio orrek; indarra daukoala ta errazoiari begiratu barik beti eureaz urtengo dokala uste dok ala? Sutautsak ik baiño indar gehiago jaukok, ire atzamarrak baiño zorrotzago dozak aiztoak eta azkorak.

Urrengo eguna igandea zan; edurra egoan goietan, eta euria zan beietan. Motrollo'k erriko ardanetxean apaldu eban eta bertan egon zan gaba ondo sartu arte, iganderik gehienetan berak eta beste askok ekandua eben lez. Urten bakarrik etxerantz, eta atzean gizon bat joakon, jausten zan euriaren ardura gitxigaz; aizeak eta euriak batera egiten eben otsaz Motrollo'k ez ebazan entzuten bere jarrai joianaren oinkadak; au noizik-bein urreratzen jakon, eta berealaxe gelditzen zan bide ertzean, egin gura ebana egiten azartuko ez ba litz lez. Gero, itxuraz, beste asmoren bat artu bear izan eban, bidetik aldendu ta gehiago agiri ez zalako.

Iñor bizi ez zan etxe txiki erdi-apurtu baten ondotik igaro bear eban Motrollo'k. Orma ondotik joiala, saietsetik zartada bat susmatu eban; biurtu zan, baiña indarrak uts eginda aieneka lurra jo eban. Etxearen illunbean ezkutaturik egoan gaizkiñak aizto zorrotza sartu eutson; Motrollo lurrean ikusi ebanean, urten eta esan eutson.

— Bizirik ago ondiño, tximista ori? Ezagutzen al nok? Nor nazan ba al dakik? Prakerre nok! Prakerre makillatua, Prakerre ostikopetua, Prakerre erbestetua; Prakerre bai

estu-estu ta larri-larri, ia eskean ibilteko eraz aurkitzen dana eugaitik! Ai, noz edo noz jausi bear oan neure eskuetan arraio orrek!

Motrollo gizajoa azkenetan egoan, izerdi larritan, zotinka, ta bildurturik eriotza ikaragarria ain urrean ikusita: gomutatu zan Jaungoikoaz, ta emazte ta semetxoekaz: bere gorlenez esan bear dogu, sendiaganako maitasunak bere gorrotoa betu (abatir) ebala, ta beraz Prakerre'ri esan eutson:

— Jaungoikoarren itzi nagik! Egin daustakan zauria garbitu ta estaldu egistak: ez nagik il!

— Ezta! Ementxe il bear dok; ementxe guzti-guztiak ordaindu bear daustazak.

— Tellatutik bera datozen itoxurak izan daitezela ik nigaz egiten dokan gaiztakeriaren ziñaldari (testigo) — esan eban Motrollo errukarriak, ia zer esaten eban be ez ekiala.

— Izan daitezala, bai! — deadar eginda, Prakerre otso gogorrek bertan erail eban.

Baiña, zelan izan eraillea Prakerre, andik urrun bizi data? Oraintxe azalduko da.

Motrollo'k larunbatean bere koñatuaz izan eban bu-rukea ta onek zelan zematu eban, igande goizean eldu zan Prakerre'ren belarrietara, ta Motrollo'k ardanetxean gabaren zati bat igaroten ebala igandeetan ba-ekian lez, erabagi eban egitea egin eban.

Bera bizi zan erriko ardanetxean aurkitzen zan igande-illuntzean mus-jokuan, eta buruko min andia eukala-ta, txarto egoala-ta, jokuari itzi eutson, eta bertan egozan batzuk

lagun egin eutsoen etxeraíño, an larranbillo ura artu ta euren aurrean ogeratu zan; gerotxoago, zerbait obeto egoala-ta, bidaldu ebazan esanaz biaramon goizean, bada-ezpadan, eldu eitezala, baldin txartoago ba-egoan, bakarrik eta gexorik bere burua ikusi ez egian.

Lagunak alde egin eta gerotxoago jagi zan, urten etxetik eta basorik baso bideak asko laburtuaz, arin, deabruak bere egoak emon izan ba leutsoz lez, artu eban Arribil aldera, ta eldu zan ondiño Motrollo ardanetxean egoala, ta gau utsez, bakartadean, atzetik eta gogorkeri andiaz esan da zelan egin eban eriotza madarikatua.

Berealaxe biurtu zan etxera; gau luzea zan lez, eguna zabaldu baiño lenago eldu ta ogeratu zan, lagunai itxaroten. Onek etorri ziranean, aurregunean baiño askozaz gexoago aurkitu eben; egun batzuetan ai-ene guzurrezkoak ugari ebazala lotu (quedar) zan oian.

IV

Urrengo goizean jakin eta zabaldu zanean Motrollo erailda (muerto) topau ebela, erri guztia zurtuta gelditu zan; errian a lako egitada deungarik ez eban iñok gomutaten, ezta zarren artean be.

Epaikaria etorri zan, agindu eban aratuteko eraildakoaren soiñeko sakelak ia lapurretan egitearren erail ete eben; ez, aldean eukazan diru ta baliodun ezparau gauzak. Itandu eban ia iñogaz asarrerik izan eban: baietz ba, koñatu bategaz zala asarre ta iru egun aurrerago alkar joten ibilli zirala. Beraz, artu eban koñatua, ta epaiterki (juzgado

provincial) buruko espexera eroan eben. Epaikariak egiten eutsozan itaunetara, garratz ukatzen eban; agindu eutson azaltzeko nun egon zan gau atan, eta berak erantzuten eban etxean egon zala ta etxekoai itanduteko; baiña etxekoen esanak ez eutson balio, ta ostera, burrukea ikusi eben guztiak esaten eben zelako itz gogorraz zematuta eban Motrollo.

Epaiariak, orraitño, itandu eutson Prakerre bizi zan erriko alkateari ia alde egin ete eban ak iñora erailtza egin zan egunetan; ezetz, erantzun jakon, igandean oian sartu ta eguenera arte gexorik egon zala.

Beraz, epaikariak eta danak, eskiertzat edo ziurtzat euken Motrollo'ren eraillea bere koñatua izan zala, onen ukamenai (negativa) jaramon barik. Epai bere kaltez izan zan, urte askotan espexean egoteko nekea ezarri eutsoen. Errubako gizajo andia!

Prakerre'ri, bihotz gogorduna izan arren, sortu ta jaio jakozan bihotzaren erdi-erdian artxo bi, txiki jaio arren andi egingo ziranak, nun jan ba euken eta; bata, egin eban eriotzagaitik; bestea, espexean egoan errubako gizajoa-gaitik.

Aldia aurrera joian, eta arrak azi ta azi, urte batzuetan eldu ziran eurai egokioen anditasunera, ta Prakerre'ren izakeran aldakuntza andia egin zan apurka-apurka. Etzan ikusten erromerietan eta beste jolaslekuetan; itzala egin zan; len barriketa utsa, ixilla ta itz bearrekoak baiño esaten ez ebazana biurtu zan; itzi eutson jokuari, dantzeari, barre-egitea sekulako joan zan bere ezpaneatik: beste gizon bat zan. Bere auzo, adiskide ta lagunak barriona emoten eutsoen, esanaz:

— Bein edo bein gizon guztiak burua jarten dabe; zuri be eldu jatzu aldia; ekin ba lanari, emaztegeia billatu, ta onerako izan daitela.

Ez eben barrurik ikusten! Egunez, al ebazanak egiten ebazan lagunen aurrean zelan edo alan estalduteko bere barruko larritasun eta atsekabea, bildurrez susmatu ez egien zetatik etorren. Gabez bildur utsa zan gizajoa; eukiten ebazan ames ikaragarriekaitik, lo egiten bildur; itxarrik illunean, bildur; argiagaz, berak orman egiten eban gerizeaz, eta argiak egiten ebazan zirkiñakaz bazterretako illun-unak be zirkin egiten ebenean, nor-edo-nor gelan egoalakoan, bildur; etxetik kanpora urteteko, bildur; etxean egonaz, bildur. Egunez naiz gabez, lagun aurrean naiz bakarrik, beti-beti bildur.

Otu jakon bein, esaten be gaitz dan bide bat, atsekabe ain izugarriei iges egiteko; baiña beste aldetik susmatu eban Jaunaren arpegi asarre ikaragarria, ta bildur andiagoa sartu jakon bere aragi ta azurren barru-barruraino.

Alan, jausi bear; eta azkenez jausi zan gexorik. Abadeak eta alkateak emakume bat bidaldu eben, gabeko ordu batak baiño bakarrago egoan errukarria zaindu egian. Osalariak aginduriko osakaiak baiño laguna eukiteak on gehiago egin eutson, eta egun batzuk igarota jagi zan ogetik, ondiño makal eta zurbil (pálido) egoan baiña.

Onan, gexo ostean egoala, eurite andi bat etorri zan; arratsalde batean, euri zaparrada luze bat zala, ba egoan Prakerre leioan, begira zelan ura jausten zan odeietatik lurrera, gela barruan emakuma laguntzaillea kaltzetagiñan jezarrita egoan artean; ba egoan Prakerre begiak zabal-

zabalik, geldi-geldi, gauza guztiekaz aztuta, burutik oldozpen guztiak iges egin ba leutsoe lez, itxaso ta erreka ta euriaren aurrean askori jazoten jaken antzera. Itoxurak itzartu eben eta ekarri eutsoen gogora bere betiko gomutea, eta esan eban:

— Ez joazan ba itoxurak ipiñi ziñaldaritzat Motrollo'k gau artan il nebanean?

Emakumeak itz ok entzun ebazan, zurtu (extrañarse) zan eta jarraitu eban bere lanean zirkiñik egin baga; Prakerre be ez zan igitu (mover) bere lekutik zati baten; ez jakon burutik igaro, bere oldozkuna iñok entzuteko eraz urten jakonik.

Geroago laguntzaillea urten zanean andik, alkatea kalean aurkitu eban, eta azaldu eutson entzun ebana; alkateak “ezin izan leiteke” iñoan, baiña bada-ezpadan epaikariari izparra (noticia) bidaldu eutson; etorri zan au, artu eban bakarrean Prakerre, eta eraso (hacer decir) eutsan guzti-guztia.

Zabaldu zan izparra inguruetako erri guztietan; askok eta askok ez eben siñestu gura, Prakerre'k gabez Arribil'era egin eban joakundea (viaje) zertzelada guztiekaz jakin arte; gero itanduten eben zelan jakin zan ain ezkutu egoan gauzea, ta itoxurak ziñaldaritzat ildakoaren aldetik ipiñiak agertu ebela guztia azalduten jakenean, arrituten ziran eta Jaungoikoa goraltzen eben, bere bildur osasuntsua bihotzetan ebela.

Ainbat lasterren agindua bidaldu eben espexera, bertan egoan gizajo errubakoa askatu egiela. Laster joan zan Prakerre aren lekua betetera; ara joan ziran beragaz atse-

kabe guztiak; an urte askotan soiñean burdiñazko lokarriak eta barruan gomuta larrigarriak narraz eroan ebazan; an urte askotan erdi gexorik erdi osaturik bertako bizikera gogorak, eta gehiago, askoz gehiago, bere bihotzean josita eukozaun untzeak ez eutsoen itzi une bateko alaitasunik; an urte askotan eroan eban bizitza bat, irudimen azkarrenak asmatu leikeana baiño itzalagoa ta bildurgarriagoa. Jaunaren itxarokuna (esperanza) gizajoak galdu ebaleko; ez egoan aren bihotzean samurtasunik, ez egoan aren begietan negar-antpulerik. Axe zan nekea! Nok azaldu daike zelakoa dan negar bagako atsekabea?

Eldu jakon bein-edo-bein ludi au izteko ordua, berak gura baiño lenago, ainbeste larritasunen erdian bizi arren. Zorionez euki eban ondoan abade jaun on bat, aren bihotzera Jaunaren itxarokuna ekarteko benetan nekatu bear izan ebazana burua, bihotza ta miiña; azaldu eutson Jaunaren erruki neurri bagea, ta oben edo pekatu andi ta ikaragarrien azpian aurkitu arren, bere itxarokuna galdutea, bere ontasuna ez ezagutzea dala obenik galgarriena; itz egin eutson bihotzetik damutasunatzaz, gure Jesukristo Jaunaren eriotzeatzaz, eta abar. Ekin eta ekin lortu eban argi izpitxo (rayo) bat sartzea illundasun ain sendo artan; apur-apurka negar eragin eutson, eta atondu eban Eleiza Amaren azkenengo Ikurtonak (Sakramentuak) artzeko; artu ebazan eta il zan.

Gaurko egunetan askoren artean dabilzan usteakaz batebateg azalduko leuke Prakerre'k eta Motrollo'k izan eben gorrotoa, onetara: "Ori euren taiu ta izakera ain ezbardiñetatik nai-ta-ez datorren gauzea da".

Orreri erantzun leikeo: katua ta txakurra be, txikitatik irakatsi ezkeru, alkarren adiskide izaten dirala: irakatsi ezkeru, ba, errazago lortuko da ori gizonen artean, adimendunak diralako, anaiak eta beraz alkar maitatzeko egiñak diralako.

GARAGARRILLEAN EDURRA

Otalar'eko Txomin baiño gizon ixillagorik eta bakar-zaleagorik ez da inun izan.

Lagun artean inoz egon bear izaten ebanean, ixil-ixillik egoten zan, entzun eta entzuten besteak esaten ebena; bere gogoan zetara egoan inok ezin igarri eikeon, ikara txikarrenik be eragiten ez eutsolako bere arpegiko narruari; noizik-bein begiak erabilli ez ba leuz alde batera ta bestera, edonok artu zeikean arrizko edo zulezko (madera) edo argizarizko gizontaiutzat.

Gitxitan, oso gitxitan asten zan bera itz-egiten; gehien-gehienetan berari egin bear izaten jakon, eta orduan be, iru

edo lau itz laburregaz amaitzen eban bere erantzuera (res-
puesta); gurata be, alegiñak eginda be, ezin eban iñok euki
aregaz izketa luzerik. Gizon legorragorik!

Ezek ez eban ikaratzen. Urira iñoz jatsi zanean bere
menditik, menditar batentzat beti ikusgarri izan oi diran
gauzaen ondotik igaroten zan ezeri begiraka ibilli barik,
gauza areik egunean-egunean ikusten oituta egon ba litz lez.
Lenengoz *automovil* bat igaro jakonean ondo-ondotik ada-
rroska, autsa ta atsa dariola, txakur bat igaro ba litz baiño
jaramon gehiago ez eutson egin. Kirio (nervio) bagako
gizona irudian.

Bere izkereari alagala (adecuadamente) etorkion bizi-
bidea eban Txomiñek. Ardizain ebillen mendian, artaldea
ugazabak eta berak erdirantza edo erdibana eukela.

Alperrik izaten zan ari esatea: “Txomin, zuk au edo ori
edo bestea egin bear zeunke, auxe datorkizu ondo, orixe
egingo ba zendu...” A ez zan iñoz ibilten iñoren esanetik,
bere gogotik baiño; gizon askeagorik ez egoan inguru artan.

Onako baten agertu zan errian Matxin Kaixku barri-
tsua, Ameriketari urte bi edo iru ibillita gero, ta erriko
ardanetxean igande arrastei baten gizon pillo andi bati
eragoion edesten edo kontetan, guzur ta abar, itxasoaz
andiko gauzak. Txomin Otalar be entzuleen artean zan.

Ameriketarako lurraren goralpen andiak esan ebazan
Matxin Kaixkuk; eta batez be, abeltzaiñak edo unaiak
(pastores) ederto irabazten dabela, gitxik joan gura izaten
dabelako basamortura ta gehienak urietan gelditzen dira-
lako; eta augaitik Euzkadi'ko baserritarrak bakarrean bizi
izateko igoiñik (reparo) ez daukelako ango basamortu zaba-

letan, laster aberastuten dirala; eta abereak azteko zabal izugarriak dagozala; bai dirala an Euzkadi guztia besteko zabalak bedar gozatsuz estalduak, gizon bakar bat bizi ez zala.

Onek guztiok entzun ebazanean Txomin Otalar'ek esan eutson bere buruari:

— Orrexek dozak, Txomin, euretzako aginduta lako lekuak; orixe dok, abeltzaintza ori, bizibide ta irabazpide egin-egiñekoa iretzat. Oa Ameriketara.

Biamon-biamonean bere ugazabari Txomin agertu jakon, eta esan eutson:

— Ugazaba, zeugaz berba batzuk egiten nator.

— Mu...til Berba egiten etorteko zeozer jazo dok... Gure ardiak otsoak jan al jozak?

— Ez, osorik dagoz. Neureak erosiko zeunskidaz?

— Baiña, zer dala-ta?

— Neu ba noa.

— Nora gero?

— Ameriketara.

— Zoratu egin al jak? Zer darabik euk? Ba dakik zer dan Ameriketara joatea? Ez egik uste or Anboto ostean dagoala.

— Neu ba noa bai... ta billatu egizu nire ordeazko bat ardiak zaintzeko, ta esaistazu (esan eidazu) neureak erosiko daustazuzan ala ez.

— Buru orretan sartu ba jak ara joatea, alperrik ibilliko nok iri ezer esaten... Ludiko gizon jakintsu guztiak ba letozak be ire burutik asmo ori ataraten ez leukiek ezer egingo... Tirok, ba, erosiko dauskadaz ardiok, eta oa euk gura dokan lekura.

Saldu-erostea egin eben, eta bagillako 12'garren egu-
nean Bilbo'n ontziratu zan gure Txomin.

Dagonillako azken-egunetan agertu zan barriro Txomin bere errian, eta beti lez, ixil-ixillik, atzera zegaitik etorri zan iñori esan barik, goiz baten ugazabagana joan zan.

— Bagillean saldu neutzuzan ardiak atzera erosiko dautzudaz, gura ba dozu.

— Bai pozik be. Eure ordeztu artu dodan ardizain barriak gauza onik ez jaustak egiten... Ainbat ardi galdu jozak... Bidaldu bear joat, eta eu ipiñiko aut len lez. Baiña, esaistak, Ameriketara eldu az eu?

— Bai.

— Ez dok egin an egote andirik ba.

— Egun bat. Buenos Aires'en. Ontzitik urten, eta biaramonean etorren beste bat onantza, ta antxe sartu nintzan.

— Zegaitik ori?

— Garagarrillako 10'garrena zan.

— Eta?

— Edurra zan gogoz, urtarrillean lez; otzak bazter guztiak ondatu bear.



— Eta bildurtu egin intzan, ez dok?

— Bai ba, garagarrillean eguraldi-modu ori zanean, neguan nor atondu an?

— Ondo egin dok. Emen obeto biziko az.

Andik egun batzuetara errian zabaldu zanean zegaitik ain laster etorri zan Txomin-Otalar Ameriketatik, Matxin Kaixkuk barre-santzokā iñoan:

— Kirten andia, emen udea danean an negua izaten dok, eta emen negua danean, an udea. Ori dok osterā idia!

— Ez ba ekian, zer egingo joan ba?

— Arraiñak baizen mutua ez ba litzok esango gaieutsokan, baina orixe jagok ba, ez jok inogaz itz egiten, eta bere burutatik ibiltzen dok, eta... pekotza!

Txomin'i esan eutsoenean Kaixku'k inoana (esaten ebana), erantzun eban:

— Zortzi urteko umetzat artzen nozue ala? Alde batean negua ta bestean udea? Nok entzun jok inoz ori lako astakeririk? Niri ez zakidaze etorri orretariko barriketakaz, zeuen amamai joan zakioeze eurokaz, txatxu andiok alakuok!

Bere ugazabak be ez eban atara gura okerretik, barriro alde egingo ete eutson bildurrez, ta sakatu eutson gehiago bere ustea; eta atan gelditu zan Txomin: Buenos Aires'ko alde ori otzaz bazter gaiztoa dala, garagarrillan edurrez zuritzen dana, ta beraz, ia zer izango dan neguan.

ARATOSTE

Mutiko soster (chicuelo) pillotxo bat agiri da, obeto esateko, ezkutaten da beresi barruko ikeztoi-zuloan.

— Mutillak, gaur aratoste dok, eta koko (máscara) jantzita joan bear joagu errira.

— Ederto asmatu dok.

— Ori, ori!

— Aupa mutillak!

An da poza koko jazteko. Zuzendu dabez nundik edo andik zapi zar batzuk eta paper zati andi batzuk; norbaitek, etxera osterá bat eginda, ekarri dau aril bat amari ostuta edo.

Zazpi zar ta paperok banandu dabez, amaika agiraka ta asarre alkarri eginda gero; begietarako zulo txo biña egiten dautsez, ta kokote aldean ari puzkategaz lotuta, egin eta jantzi dabez karatula dotoreak.

Gero, arkondarea praken ganetik ipiñi, txapela ta jakea itzulietara (al revés) jantzi, praka barrenak tolostu ta jaso ia belaunetaraiño... ta orra kokomarro jantzita nire erriko mutiko koskorrok.

Eurok baiño obeto marrotuko (disfrazar) dira urieta-koak; baiña iñor ez da izango pozago, jantzi polit-ederrak erabili arren.

Areik egiten dabez barre algarak alkarri begiratuta!

— Mutillak!, ikusi eiozue oni arkondarea! Laster eza-gutu abe i, txarrito ori.

— Euk al daukok garbiagoa, zotza lakoxe txanka me orreikaz?

— Oni, barriz, karatuleak ezin jautsok artu arpegiaren erdia be, ain jaukok aldaba andia!

— Aituok, i, barritsu? Ez neukek trukatu, ba, ik daukoan gaztaña txikol orregatik.

— Barriketak itxita, tirozue; gaioazan errira.

— Gaur atso guztiak ikaratu bear joaguz.

Piperpote utsitu bätzuetan arri koskorrak sartu ta zarata eragiñaz abiatu dira noz-edo-noz oiuka ta santzoka.



Euren bidean lenengo aurkitzen daben etxe ondoko errekatxuaren ertzean eskaratz-tresna batzuk dagoz legor-

tzen, garbituta gero; artzen dabez andik sarten bi ta mazkillu (caldereta) bat, oneik be zarata egiteko, ta abarrots andiagaz sartzen dira errian.

Iñun katurik ikusten ba dabe arrika egiten dautsoe, katu karraixi andiak eurak egiten dabezala. Txakur guztiak arrapaladan doaz igesi etxe osteetara edo etxe barruetara al daben lekura, andik asten dirala ausika ixildu barik, bildurrez. Batu jakez etxe artean olgetan ibilli diren erriko ume txiki guztiak, eta danak batera jarraitzen dabe.

Arrapau dabe, geroago, errota osteko gaztaiñadian belarri andidun asto zarzar bat; igon jako bat bizkarrera, ta ba dabiltz poz-pozik alde batera ta bestera, itxita aurkitzen dabezan ate guztietan arrika ta makillaka, zarata andiak atararik.

Atso guztiak barre-santzo baten dagoz eurai begira, bizi-bizi ta pozik daukezela euren begi tximurrak, eta agin lokaren bat edo beste agiri jakezala euren ao zartuetan.

Baiña ludi onetan poz iraunkorrik ez dago, eta an dabillen pozak be egundoko ariñen alde egiten dau.

Iñok igarri barik bertaratu dira, alde batetik errotaria bere astoaren billa, beste aldetik sartanak eta mazki llua artu dabezan etxeko gizona bere tresnaen eske.

Kokoteko bi galantak artzen dauz asto ganean dabillen *zaldunak*; eta tresnakaz dabiltzanak, baita beste enparauak be, artzen dabez ostikada ta zapladako *desenteak*... eta ortxe amaitu da gure erriko aratosteetako poz gutzia.


Uxatu ta sakabanatu dira mutiko koskortxuok erri bazterretara, ipiñi dabez jantziak egunero lez, ta kitu.

Itandu egiozue mutiko onei aratostietan olgau diran ala ez, ta erantzungo dautzue alboak (costados) minduta daukezala ondiño barrearen barreaz.

Ez Bilbo'n, ez Paris'en, ez Niza'n, ez iñun ez dira olgau mutiko koskor orreik baiño gehiago.

Gizon egin daitezanean be gomutako dabez eurok aratoste egunetako jazokunak. Errotariaren kokotekuak eta beste gizonaren ostikadak eta zapladakoak euren bizitza guztian pozarren gogoratu jakez.

Poztasuna ez dago onetara edo orretara jantzitean, asko edo gitxi eukitean; poztasuna norbere barruan dago, norbere gogoan.



URTEBARRI BARRI

Ene irakurleak, azaldu gura dautzuet nire baserriko ekandutxo bat. Ara: Or doaz estartea gora mutil koskor batzuk, txor-txor-txor, guztiak batera barriketan, une baskartu baten be ixiltzen ez dirala, musturrak gorri-gorri otzaren otzaz, oiñetakoak eta praka-barrenak loi-loi eginda lupetzez (barro).

Basetxe baten aurrera eltzen dira, ta:

— Emen kantauko éte joagu, mutillak?

— Bai bein! Igaz be emon jeskuean eta...

— Tirozue ba.

Erreskadan jarten dira, ta ben-ben, gauza andiren bat egiten ba liñardue (jardungo ba lebe lez), asten dira:

Urtebarri barri
daukonak ez daukonari;
nik ez daukot eta niri
emoten ez daustana...
txarri-belarri!

Orain arteko abesti au euskeraz dago, ta zer-edo-zer esan gura dau; baiña emendik aurrerakoak erdi euskeraz, erdi erderaz esaten dabez, ta zentzunaren apurrik ez dauke, tentelkeri utsa.

Don Nikolas Karamelo
konpesore Mariandres,
alarguna dontzellea
kantaremos alegria.

Lau bentana, bost ate,
sei etxe ta subete
 si si si
 no no no
otzara bete solomo.

Aingeruak gara,
zerutik gatoz,
una limosñita
por amor de Dios,
aquí estamos cuatro,
kantaremos dos,
agillando, agillando!
Matxin-arrando!

Abesti oneik asmatu ebazana zororen bat izan bear; baiña ez ebazan iñok asmauko, abesti askoren zatiak edo dira, mutikoak erabilli ta erabilli, alkarregaz nastu ta itxulastu (revolver) dabezanak.

Ondo izango litzake barriak egin polito ta egoki, ta mutil txikiei irakatsi, ta saritxuak emon ugari eurak abestuten jatorkuzanean, poztu daitezán, eta ekandu zar ori bere loietarik garbituta ipiñi.

Nire erriko mutikoak ez dabe ondo abestuten, baiña sari andirik be ez dabe artzen; gartzaiña-txikolen batzuk, sagar txatxarren bat, intxaurren batzuk, tremesogi zatiren bat...; dirurik ez, orixe bai ez! An dirua baiño lenago belarri bat emongo leukie. Esaten be, iñoz, ta ez dakit zein etxetako etxandereak bein lukainka-mutur bat emon ebalá. Orain



jakizu noiz izan zan jazopen arrigarri ori; ba, ni mutiko sostorra nintzala *Urtebarri* abesten ibilli oi nintzanean, eta amaika zaparrada jausi da ordutik ona!, gu baiño andiagoak ziranak esaten eben eurak be entzun ebela lukainka-mutur orren ipuin ori.

Oraintsu, lengo urte baten jazo zan gauza arrigarria, iñoiz amesetan be uste izan ez ebena nire erriko mutikoak: *karameluak* emon eutsiezan basetxe baten.

Bai, eldu zan mutiko aldratxoa *Zinko* deitzen jakon baserritar baten etxera, ta oi dan lez, abesten ekin eutsen gogorik onenagaz *Urtebarri barri*.

Euren abeskundea (cantata) amaitu ebenean, agertu zan *Zinko* etxeko atean, barreka barreka, eta esan eban:

— Mutillak, ba... ez gozuez arrapatu gauza andirik emoteko moduan; orraitino, gura ba zenduez, atzo Durango'tik ekarrita ortxe daukaguzan karamelo batzuk emongo geunskizuez.

— Bai, bai; artuko doguz bai, pozik be.

Karameluen billa *Zinko* barruratu zan bitartean, mutikoak ikotika (dando brincos) pozaren pozaz, noiz artu eben ba iñoz alako saririk gizajoak? Karameluak!

Urten zan *Zinko* esku biak bete karamelogaz, ingi (papel) zuri-zurietan ederto bilduta bakotxa, ta iruna emon eutsiezan mutikoei, barreka barreka esanik:

— Gauza merkeak ez dozak oneik eta bakotxari iru emonda be, pozik izango zarie.

Izango ez ziran, ba! Ondo pozik artu eutsoezan! Estar-tea bera bitxabalerantz joiazala esaten eben:

— Orixe *Zinko* lako gizonik garaunik be ez jagok errian.

— Olakoxe gizonak gura ñeukezak.

— Sekulako *Zinko* dok ori gero.

— *Diez* izatea be merezidu jok.

Onetan euretaiko batek zabaldu eban karamelo-ingia ta... zer zan a! ...barruan marraskillo-masala eukan; besteak au ikusirik, zabaldu ebezan ingiak, eta guztietan egoan marraskillo-masala.

Asi ziran barre-purrustadaka alkarri begira, ta erabagi eben errian ez egoala *Zinko* baiño gizon burletia gorik.

Bitartean an agiri zan bera, muna (ribazo) goiengan, mutikoeri begira, barreka.

Gabonzar gabean jandako marraskilloen masak (os-kolak) ingi-txatal zurietan bilduten egon ei zan luzaro, mutikoei trankart (engañar) egitearren.



KUKUA ENTZUTEN

Igande goizean lenengo mezea entzunda, Bilbo'ko Goenkale'ko Txomin Porru etxeratu zanean, bere emazteak esan eutson:

— Zein gosari ipiñiko dautzut, berakatz-zukua ala sardiña zar errea?

— Ez, gaur basora noa, ta ipiñi eistazu gaztaia edo, ogi zati bategaz.

— Bai, ta lukainka muturtxu bat be ipiñiko dautzut. Egun ederra daukozu basorako. Perretxiko billa zoaz ala?

— Ez, ba. Orrillean sartuta gagoz ta ondiño aurtengo kukua entzun barik nago, ta gaur joatea otu (ocurrir) jat, eta entzun arte ez nator etxera, bakizu, lenengoz txori udabarritar ori entzuten danean sakela (bolsillo) bero ba dago, urte guztirako *bero* egon oi dala.

Bai, gure izeko, Jainkoak zeruan euki daijala. Mari-Baltz'ek be, orixe esan eroian, eta beste askok be bai, ta ainbestek diñoanean... keia dan lekuan sua da.

— Ekazuz ba atzo arturiko asteko alogerak eta...

— Bai, bai, ene gizontxo... eutsiz; apaiteko libelauren (media libra) gibel ekarteko dirua izan ezik, etxeko guztiak or daroazuz.

— Ba noa ba, ia zorion bat izaten dogun.

— Ba dago bearra. Zoaz ondo, ia kukutxu ori entzuten dozun.

* * *

Eguberdi aurretxoan orra nun sartzen dan Txomin Porru bere etxean arpegi illunaz.

— Eta? Entzun dozu kukua?

— Entzun dot.

— Tira ba! Beintzat geuretu dogu aurtengo lapikokoa ta...

— Aste onetako gosea be bai, geuretu dogu...

— Zer diñozu? Ez dot ulertzen.

— Ara, emaztetxu: Or Iturri gorri aldetik Buya'rantz joan naz, astiro-astiro, ta beti, al izan dodala, zugatzartetik zugatz arte, txori zorioneko ori nor entzungo ete dodan ba, ibilli nabillala jan dodazala ogi ta lukainka-mutur ta gaztae-zatia; Deun Erroka azpiko iturritxoan il dot egarria, ur garden eder otz aretatik dangada batzuk egiñaz, ta... bapez!, ludian kukurik ez ba lego lez.

Neure artean: "Andia dok!" esanda, jzarri naz Buya barreneko zugaztian sasi-moltzo andi baten ondoan, eta asmau egin dot antxe arratsaldera arte be geldi egoteko, leku oberik a baiño amestu be ezin leike ba kukuentzako ta.



Zigarrotxu bat ixetuta ba nago zabal-zabal arkoloka (horcajadas) bedar ganean, gerizpe gozatsu artan, ipar-aizetxu bigun ozkirria (fresco) arnasatuten izan dodala... a zan aroa!... ta onetan sumetan dot sasi-ostean abarrotsa, begiratzen dot eta...

— Kukua izango zan!

— Bai... zereko kukua!... gizon itzal bat, eskuan aizto (cuchillo) luze zorrotz ikaragarri bat ebalá.

— Ene Josu!

— Eta erderaz esan daust emoteko berari aldean neukozan diru guztiak eta agudo ta txitik be atara barik, bestelan gibelak euzkitara atarako eustazala. Bildurraren bildurrez agiñak alkar jotén izan daustela, ixil-ixillik emon dautsodaz diruak. Zer egingo neutson?

— Ai bai, ondo egin dozu, Txomin; zeuri zer egin ez dautzunean Jainkoari eskerrak.


Gizon ori arin joan da gorantz, eta ni gelditu naz *praille*, aldean lauziko barik, eta... deabrukeria ez ba da!... orduantxe, etxerantza abiatu nazanean asi dira kukuak alde guztietatik, alkarren leian letxerik, kuku! ta kuku! Esan eikean neuri burla egiten ebiltzala... Zer egingo jako!... Txarragorik be ikusi leike ta!...

— Ez estutu, ene gizon, atonduko gara zelan-alan, Jaungoikoa lagun. Alde batera, jazo jakun-ori ondo irabazita euki dogula esan leike.

— Zegaitik ba?

— Orrelako siñeskeririk euki bear ez dalako. Urte guztirako jana edo ondo-izatea Jaunak emongo dausku, geure aldetik lan egiñaz alegintzen ba gara.

Eta Txomin Porru zintzoak eta bere emazte on-onak, bakerik osoenaz, bazkaldu eben euren lapikokotxua.



ZIÑALDARI ARTEZA

Uda-goieneko arratsalde epel-epela da.

Baserri-etxe bateko atarte aurrean auzoko emakumeak batuta dagoz, bata galtzetagiñan, bestea baba-urkultzen (desgranar), au bere gizonaren prakai ipingi (remiendo) bat ezarten, ori galtza zarren batzuk *errepasetan*, beste bat etxe ondoko poztxuan tresnak garbitzen...

Danak darabille esku artean zeregiña, iñor ez dago alper, baiña iñor be ez ixillik.

Ego-aizea dabil, eta oi dan lez, guztiz urduri dagoz emkumetuok, iñoiz baiño barritsuago, beti barritsuak izan arren.

Ez dakigu zetatik, ez zelan (jakizu!) euren artean asarrea sortu da, ta alkarri destañaka asi dira, guztien aurrera iñun diranak ataraten dabezala.

— A bestelako zera! Ik eure modukoak gareala danok pentsatuko don.

— Ez nagin asko zirikatu, asten ba non asi ba, atarako daunadaz exkutuan daukonazan trapuzar guztiak eta.

— Ni... ri? Geldi-geldi gero! Lotsearen izpirik ba eukona, ondo ixillik egon bear euken.

— Ik ez dakin lotsea zer dan be ta, neu ixillik? Ez orixe!

— Ez az ixilduko, ez; i beti izango az betikoa; ire ondoan ezin bizi leiteken iñor be ta, geizto ori.

— Ni geiztoa? Ia beste bein esain!

— Geiztoa, bai; barriro be esango jonat, azalako. Gizona be jo egiten don eta.

— Aitearen! Au da emkumearen lotsabakoa! Gizona joten dodala!

— Bai, bai, joten don, egia don.

— Ez don!, ta laster guzurtauko aut, gonerre peste ori.

Jagiten da bizi-bizi, altzoan daukozan gauzak lurrera bota ta artzeko asti barik, eta inguruan olgetan dabillen mutiko bati deituta:

— Purtosu, ator òna, polit ori, errekadu bat egingo daustak? Neuk saria emongo dauat. Joan adi etxe osteko solora, antxe jabilk gure Praisku bearrean, eta esan egiok datorrela arin-arin ona, neuk esan dodala-ta.

Andik lastertxu agertzen da Praisku etxe-alboko orma ganean eta ba diño:

— Ze denganiño bear daustazue, barritsuok alakuok!


— Ara, Praisku, esaiskuzu ementxe argi ta garbi: Nik iñoz jo zaitut?

— Iñoz bakarrik? Bai bein baiño sarriago be, arraio orrek!

Entzuten egozan guztiak barre-santzoka estandak egin bear ebezan.

Gau atan, *seguru* be, Praiskuk ez ei eban oztik izan bizkar aldean.





TXIMISTARGI BARRIA

(Jazorikoa)

Emen irakurriko dozuena lengo urte baten Durango'n jazo zan.

Merkatu eguna zan, eguraldia illun-illun egoan; emakumetxu bat sartu zan Artekale'ko saloki edo denda baten, eta ikusirik tximistargi-maketza, apur baten argiari begira-begira egon eta esan eutson etxeko-andreari.

— Ene! Au da argien ederra! Egundo onakorik!

— Gustetan jatzu, Ana-Mari?

— Bai. Polito dago kristalezko bere ontzitxo orretan. Zenbat kostetan da onako bat?

— Bost errial.

— Bat erosiko neuke. Nun saltzen ete dira?

— Neuk daukodaz ementxe. Gura dozu bat ala?

— Bai, ipiñi eidazu bat. Sekulako ikarea artu bear dabe. Kosanton gureak eta mutillak, gaur gabean argi dotore au ipiñi daidanean gure subetean.

Ipiñi eban argi-makatza (bombilla) polito-polito bere zimeratxoan (zestillatxuan) eta agur esanaz joan zan Ana-Mari ona, lau urteko umeak baiño gaiztotasun gehiago ez eukon emakumetxu zintzoa.



Urrengo merkatu eguna zanean, orra nun agertzen dan bera Artekale'ko denda artan, eta ba diñotso etxeko-andreari:

— Ara ba, lengo egunean eroan neban argi-ontzitzua ez zan ona izan edo...

— Ez?

— Neu pozarren eldu nintzan etxera, ta estuen nengoan gaba noiz etorriko zan gizonak ikaratuta izteko, ta esakerea dan lez “nire poza pozura” joan zan. Ipiñi neban argitxo au ta... len beste illun. Burla egin eusten sano gure gizonok, esaten ebela erretxiñean alderako ez dagoala argirik ondioko ta... ene!, ene!...

— Fundiduta egon ete zan ba? Ekarri dozu bonbillea?

— Zera? Argi eitekoa? Bai... ara...

Saloki-andreak artu ta ipiñi eban beste makatzaren lekuan, berau kenduta, eta ederto argi egin eban.

— Ikusten dozu?, Ana-Mari, zein polito?

— Andia da gero!

— Zelan ipiñi zendun ba?

— Nik ba... ortxe dagoan lez, goiko kuartoeko untze batetik abarka-kordelaz dingilizka.

— Baiña, Ana-Mari, Jaungoikoak parkatu daistala, letrizidaderik ez ba daukozue, onek ez dautzue balio!

Artu eutson argi-saloscari edo dendariak, eta emon eutsozan atzera bost errialak, eta iñun diran atzalgundiak (esplikaziñuak) be egin eitsozan aditu erazoteko tximista

barik, edo *letrizidade* barik, dendariak esaten eban lez, ez zala gauza argi egiteko etxera eroandako makatza (pera).

Ez eban ezer ulertu, ta len bestean joan zan, edo len baiño txartoago, buru barruan naste illun bat eroialako.

GIZON ZURRAK ONDO ERABAGI

(Jazorikoa)

Gizon zurrik iñun izan ba da, Mañariko Galtzada deitzen jakon ostatuko jabea bai zan bat.

Emen edestuko doguna antxiña jazo zan, burdinbideak asmatu ziran aldia baiño askozaz lenago. Aldi aretan, Bizkaiaren zati andi batek Araba ta Gaztelerrria'gaz eukon saleroste (comercio), artu-emon, eta joatetorri (trajin) guztia Mañari'tik igaroten zan, eta orregaitik, ango ostatuak irabazpide ederrak izaten ziran, euretan arradaka (chorreando) lez dirua sartzen zala, ostatukoak bidaztiei (viajantes) abegi ona egin eta mahai ugaria ta oe garbia emoten ba eutsien batez be.

Orduko aldietan ez zan ezagutzen, gure Bizkai onetan beintzat, Txindetxe edo Bankorik, eta bakotxak bere lanagaz irabazi edo aurreztu al izaten eban dirua, ezkutatu egiten eban polito-polito bere etxeko zirkilluetan (escondrijo), emen zati bat eta or beste bat eta an beste bat.

Galtzada'ko ostatu-jabe arek be olantxe eukozan ezkutatuta urrezko diru pillotxuak.

Morroi bat eukon ostatuan, mutil gazte bizkor ta zolia, lanean zindo-zindoa. Arabarra zan berau.

Igande arratsalde baten, erriko jaia zalako edo, Galtzada'ko ta inguruko etxeetako biztanleak kale aldera ziran guztiak, ostarria izan ezik. Onek, bere burua bakar ikusi ebanean, asmatu eban diru pillotxu bat sartzea ezkutuleku baten. Sartu kortan, sardeagaz eragin alde batera bazterreko sats-pilloari, ta lurrean egoan arlau (losa) bat jaso, ta agertu eban ezkutulekua; zenbatu (contar) ebazan ardura andiz an eukazan urrezko diruak, eta euroi generaturik eroiazan barriak, itxi eban zuloa arlauagaz, satsa len lez ipiñi eban barriro ta alde egin eban kortarik eskuei igurdika (frotando) ta barre-barreka... iñok ikusi ez ebalakoan.

Baiña ikusi eben ondo beste aldeko bazter illuneko aska ganetik begi adikor ta bizi-bizi batzuk. Arratsalde atan, eguberdi ostetxuan, kortako mando ta beste aberei jatekoa askara bota ondoren, arabar mutilla bertan gelditu zan, buruko min pizka bat ebala ta uste izanik kale aldera joatea baiño obeto izango jakola lo alditxo bat egitea, ta olantxe ba, korta bazter illunenean askan bigungarritzat ira-besarkada (brazada) bat ipiñita nasai-nasai etzun zan. Ugazabak ez eban uste a etxean zanik, erriko zelaian dantzan ebillela baiño.

Ugazaba kortara sartu ta sardeagaz satsa kentzen abiatu zanean itxartu zan mutilla, ta ixil-ixillik egon zan, arnasea be arduraz arturik, ugazabak egin ebanari begira.

Andik egun bi edo irura, morroiak esan eutson ugazabari:

— Zeugaz itz bat egin gura neuke.

— Esaik ba.

— Etxera joateko gogoia dodala ta, nire ordezeko bat zuzendu bearko dozula.

— Iru edo lau illabete baiño ez dok etorri intzala ta, zergaitik oa ba? Nire zer-esanik daukok ala? Gehiago irabazi gura dok ala? Ara, gertu naiagok euk eskatzen daustakana emoteko, aspaldi baten ez joat euki eu lako mutillik eta...



— Ez, zer-esanik ez dot; ondo artu izan nozue, ta irabazi... edonun irabazi neikean beste morroitzan. Baiña, neure etxea beti gomutan daukot, neure ama alarguna ta anai-arrebak beti gogoan godaz ta...

— Tirok ba, tirok. Ondo damu joat ba euk alde egitea; ez dok eu leusintzearren (halagar), baiña ez jakiat eu lako beste bat idoro al izango dodan.

Egun batzuk geroago joan zan bere errira arabar mutilla, urre-dirutan zati polita eroiala, ugazabak kortako ezkutulekuan euki ebana oso-osorik. Ezkutu-lekuaren jakitun egin zan egunetik urrengoan, goiz-goizetik jagi ta al eban ixillen ibillita, ostu eutsozan ugazabari an eukozeanak. Onek, ostera, ez eukon orrelako gogorapenik (pensamiento), eta batek ba daki zenbat alde igaroko zan a zuluua barrero ikusi orduko.

Bere errira eldu ta laster, mutillak errota edo bolu bat erosi eban, toki egokian egoana, ta arri barriak ipiñi eta beste tramankuluak barriztatu, laba eder bat geitu ta etxe guztiari barri-antz andia emonik, asi zan ale (garau), urun eta ogi-saleroskuntzan (comercio). Orrez ganera, erosi ebazan soloak eta oianak (bosques) be. Irabazte-arazoetan garratz abiatu zan.

Bere errikideak (paisano), ainbeste dirugaz mutilla ikusirik, ikaratu ziran; ba, lau illabete aurrerago itsu bati soiñua jo eragiteko txanpon baten jabe ez zan, eta ezin ulertu eben zelan atondu zan ain aldi laburrean ainbeste diru egiteko. Asi ziran mar-mar, eta gehienak txarrera jota, oi dan lez, ustea egin eben lapurretan edo beregandu ez ete ebazan diruok. Bat-edo-batek izparra bidaldu eutson, mandazaiñen

bitartez, Galtzada'ko ostatudunari, lengo bere morroi muti-llak diru-arazo andiak erabiltzala, ta mutil zindo ta ona irudi arren, ezin ulertu ebela ainbesteren jabe egitea morroitzean eta ain aldi txikian, eta bada-ezpadan jakitun ipinten ebela.

Izpar au artu ebanean: "Arraio bat!" jaurtinda urduri-urduri jarri zan ostataria. Urrengo bakar-aldian arakatu (registrar) ebazan bere ezkutuleku guztiak, eta kortakoa utsik aurkitu eban.

— Ederrak emon jeustazak arexek! —egiten eban bere artean ostatari zurrak—. Zelan igarri ete joan or dirua egoala? Auxe dok ona! Eta orain, zer egin? Bere atzean asten ba nok epaikarien aurrean, orra beste buru-auste bat, orain daukodanaren ganera; eta ezer egiteko, beste zulo bat utsitu bearke joat; eta berak eroan dauan dirutza ori ez dok izango ez beretzat ez niretzat, idazkizonak (idaz-gizonak) dana jango joek. Zer egin?... Ardura andiz ta otz-otzean oldoztu bear arazo au...

Egun batzuetan gogoan erabilli eban bere morroiaren egitadea, lorik be asko gehiago egin ez ebala ta jandedan egiteko be leia barik. Gau baten erabagia artu bear izan eban orraitioño, ba goiz-goizetik jagi, ondo gosaldtu, mando bat gertau, eta beronen ganean arpegi argiagaz, trapa-trapa, zuzendu zan Araba'rantz, Urkiola'tik zear.

Eldu zan morroiaren erri ta etxera, ta oni, ikusi orduko, esan eutson:

— A, mutil, itz egin bear joagu biok eta bakarrean. Etxean gela egokirik ba daukok orretarako, etxean, eta ez ba deritxok, beste edozein lekutan, basoan edo...

— Ementxe, errota osteko gelan sartu gindekez, iñok entzungo dauskun bildur barik.

Joan ziran ara, atea ondo itxi, ta alkarren aurrez-aur jezarri ziranean:

— Ik niri lapurretan egin daustak —esan eutson ostataria mutillari.

— Bai! Ukatu zetako.

— Zelan eta zegaitik izan dok?

— Ara, ba, ugazaba; neuk gura ez nebala bein ikusi zindudan kortako ezkutulekua agertzen, eta alan jakin neban diru-pillo polita zeukola bertan; axe artzea neure eskuan neukola-ta ziltzan (tentación) jausi nintzan, ostu neutzuzan urre-diruak. Ba dakit oben egin dodala. Parkatu egistazu obena, ta artu egizuz diru orregaz erosiriko etxe ta lurrak eta enparau, geratu jatan dirua. Nik ustea bai neban iñoiz ordaintzeko ostu dodana, arazoak ondo bai joadazan.

— Ara, mutil; ondo arduraz arturiko oldozpenagaz etorri nok eugana: Nik i salatu (denunciar) ta espetxera bidaltzeaz ez joat ezer irabazten, ori lortu al izateko ba uste joat ostu daustakan diru guztia, edo gehiago bear bada, eralgi (invertir) bearko dodala; i mutil azkarra az, beargiña ta zindoa, nire diruekaz polito abiatu az irabazte arazoetan... Ba, auxe diñoat: Egin yaiguan (daigun) idazkagiri (documento) bat, nik iri palagadu (adelantar) dauskadazala diruok euneko biaren saripean eta i lotzen azala diru ori osoan nire eskuetara biurtzeko amar urteko epe barruan; eta lapurreta orren barri ez daigula jakin Jaungoikoak, euk eta neuk baiño. Zer deritxok?


— Zer deritxodan diñostazu? Gertu nagola ori egiteko, ta zeu zareala ludian danik gizonik onena.

— Orretara ezkeru, mando bat artu egik, eta gaioazan oraintxe bertan Gasteiz'era, ziñaltz-idazkariak geure egu-nea (contrato) atondu dagian.

Alantxe egin eben. Ain azkarra izanaz ganera, mutillak bere irabazte arazoetan zori ederra izan eban, eta diruaren saria ta dirua berbera osorik ordaindu eta biurtu eutsozan bere lengo ugazabari, bera aberastuta, edo ondotxu beintzat, geratu zala. Bere errian ez eban iñok jakin mutillaren lapurretea.

Ia, ostatari a gizon zurra ta zindoa ez ba zan!

Bera gizon zar-zarra izatera eldu zan, eta niri edeski (narración) esan eustanak berari entzun ei eutson, azaldu barik orraitioño nor ta nundarra izan zan bere morroia; baita be esaten ei eban agure zoli arek, morroi-izana ta biak beti adiskide izan zirala.



BALTZ EUSKELDUNA

(Jazorikoa)

I

Orain irurogei ta amar urte inguru dala, Ego-Amerikatik Apirka'ko itxas-bazterrerantz etorren iru mastadun (mástil) ontzi ederra; oialduna, aldi artan itxaso zabaletan ibilten ziran gehienak lakoa.

Bilbao'tikoa zan, eta bere barruko guztiak, ontzi-burutik asi ta azkenengo txoraiño (grumete) bizkaitar euskeldunak ziran, mundakar, bermiotar, elantxobetar, lekeitiar, ondarrutar, algortar, eta abar.

Sierra Leona izena dauan Apirka'ko alde orretan, ekaitz asarre ta indartsu batek arrapatu ebazan. Egun eta gau oso-osoan aize ta itxaso gogorrakaz burruka itzela erabilli

eben euskeldunok, baiña eginalak egin-arren, itxas-bazte-
rreko ondartzza zabal batera jo eban ontziak, aizeak eta
ughiak (olas) bultzaka eroanda, ta bertan josi jaken, karra-
kada andi bat eginda birringatzen asi zala. Ez eben izan
astirik txanela bi uretara eratzi ta eurretan arin-arin sartzeko
baiño, ughiñen sartadak ontziori bereala ausi ta purrukatu
eban-eta.

Eguna zabaldu ta laster jazo jaken gizajo arei ontzia
galtzea, ta an ibilli ziran txanelokaz (bote) barregarri goizik
gehienean, ondartzzeak ipar-aldera eukan ukondo (recodo)
bat arrapau eziñik, itxasoak noiz iruntsiko ebazan bildurrez.
Ibilli ta ibilli, orraitño, eguberdi inguruan lortu eben ondar-
tzearen ukondoa igarotea, ta aurkitu ziran galzoritik aske,
leku artan ba itxasoak ez eban ain gogor joten, aurre-ikara
ez etorrelako. Urten ziran leorrera aldean erioen jantzia
baiño besterik atara ez ebela.

Itxasoari iges-egin eutsoen, baiña beste arerio txar bat
agertu jaken: gosea. Ondartzza are inguru guztietako lurrak
elkor-elkorak ziran; ez zan agiri an ez biztanlerik, ez
abarerik, ez zugatzik, ez ezer, lur igerra baiño. Onak egozan
gizajoak! Ia egun bi bai ziran ezer sartu ez zala euren
urdailletara ta... a lako maurtuan (desierto) euren buruak
ikusi!...

Gaba bertan egin eben, arrausi ta arrausi, ta biaramo-
nean, itxasoa baretu (aplacar) zalako, ontziburuaaren agin-
dupean txaneletan sartu ta abiatu ziran ipar-alderantz itxas-
bazterretik. Arratsalde erdian oartu eben ibat txiki baten
iztaoa (desembocadura) ta bertara eldurik, ibaia-gora artu
eben bidea, norbait aurkituko eben itxarokunaz (esperanza),
edo beintzat, nun-edo-nun zer jan agertuko jakelakoan.

Onetan eldu ziran ibaia beste bitan urkultzen zan toki batera, ta antxe egozala asmatu eziñik zeñetatik joan, apirkarren txanela antzeko *piragua* deitzen jakonetaiko bat ikusi eben eurak egozan alderantz etorrela ibai batetik bera, gizon baltz bat ganean ekarrala.

Oneik urreratu ziranean gure euskeldunok oartu eben *piraguan* igali asko ekarrela, eta euren goseak eraginda asi jakezan baltzai deadarka ta kiñuka gelditu eitezala adirazoten. Gelditu ziran; bitzuek alkarri bizi-bizi begira jarri ziran; euskeldunen ontzi-buruak kiñuka adirazo gura eutsen emoteko igalietarik zerbait; gosez auldata aurkitzen zirala-ta; baltzok be kiñuka erantzuten eben, baiña ez jaken ondo ulertzen esan gura ebena, beintzat ezer emoteko antzik ez erakusen (ez eben erakusten). Onan, alkarri kiñuka iñar-duela ontzi-buru ta baltzok, euskeldun batek esan eban gogor:

— Zetan gabiltz onetan astia alperrik galtzen! Eldu orrei ta jaurti uretara, ta kendu or dakarrezan jateko orrek!

— Geldi!, geldi!... Geu be gizonak gara gero!... —erantzun eban *euskeraz* aretaiko baltz batek.

Arrituta, kokolotuta lez geratu ziran bizkaitarrak. Ontzi-buruak gero esan eutson euskeldun baltz ari:

— Ez egizue orren esana aintzat artu. Onean deskatzuegu (eskatzen dautzuegu) jatekoa, ia zutunik egoteko gosearen gosez gauza ez garala gagoz ba-ta.

— Neure anaiak lez maite dodaz nik euskeldunak —esan eban baltzak—, eta bear dozuen guztia emongo jatzue. Artu ta jan egizue, gizajuok.

Eta piraguan ekarrezan igalietarik emon eutsen euskeldunei guraiña; eta gero:

— Orain goazan nire erritxora, ta an aurkituko zarie zeuen etxean lez.

Ibaitarteko zorrotza (rasante) igaro, ta beste ibaiadarretik gora jua ziran danak baltzen baserrira. An egon ziran euskeldunak ederto ainbat egunean; biztanle guztiak abegi gozo-gozoa egiten eutsien, ikusirik baltz euskeldunaren adiskideak zirala; onek, barriz, bere bihotza be emongo leuskioen bear izan ba lebe; bere gogo guztia zan euskeldunak poz-pozik eukitea.

Baltz euskeldun zindo arek, ganera, itxasaldeko goi-une baten ipiñi eban zaintzaillea, ontzirik igaroten ikusten ba eban izara andi bategaz ikur-egion (hacer señas), gelditzeko.

Eta olantxe, noizbait ontzi bat gelditu erazo eben, eta bertan etorri ziran Europa'ra euskeldunok.

II

Orain, irakurleak itanduko dau Apirka'ko baltz arek euskeraz itz-egiten zelan ekian.

Edeski polita da.

Baltz euskeldun a ume txiki-txikia zan aldian, gizon zuri bihotz gogordunak joaten ziran Apirka'ra ta baltzok arrape-tan ebezan abereak ba litzaz lez, ta gero Amerika'ra eroan, an saltzeko. Gizonak gizona orretara erabili! Jesukristoren irakatsiak ekiezan gizonak lan deunga ori egin edo laketu



(permitir)...! Guzurra dirudi, baiña alantxe jazoten zan. Lotsagarria Europa'ko Laterrientzat (Estados) ori!

Orretariko baltz-arrapaketa baten baltz au be artu ta eroan eben Habana'ra, amar urte inguru ebazala bakarrik. Uri ospatsu artan mutiko au erosi eban euskeldun batek, eta eroan eban bere etxera. Euskeldun ori eukiduna (adinerado) zan, lugintza (hacienda) anditxuaren jabea. Inge-gozo-arlo (caña de azúcar) andiak ebazan eta bai olea be gozarri edo azukerea egiteko. Ola-ondoan (fábrica) eukon bera bizi-izateko etxe ederra, bere lurren erdian, eta bertan eukozan emazte ta seme-alabak. Eurok, eta etxeko otseñak, danak ziran euskeldunak. Etxe artan ez zan beste elerik (lengua) erabilten euskerea baiño.

Euskeldun zaldun arek bere idazkelea (oficina) garbirik eta eraz eukiteko ardurea emon eutson mutiko baltzari. Au, guztizko esangiña (obediente), bizkorra, apala ta bihotz onduna zan, eta bere ugazabak eta bai etxeko beste guztiak maitasun andia izan eutsoen, eta euren arteko beste bat lez, etxeko lez, artzen eben. Mutiko baltz au laguntzat euki eben ugazabaren mutikoak, eta alkarregaz amaika olgeta egin eben ango bazterretan.

Eta antxe ikasi eban baltzak euskerea, antxe bizi izan zan bere sendian lez ogetabost urtera arte.

Orduan bere ugazabak erabagi eban bere sendi guztiaz Euzkadi'ra bizi-izaten etortea, ta bere morroi baltzari askatasuna emon eutson lagien (ley) aurrean, eta onez ganera, dirutza-mutur polita be bai eskura.

Mutillak bere burua aske ta dirudun ikusirik bere aberrira joateko asmoa artu eban. Euskaldunen etxean ondo ta pozik egon zan arren, beti izaten eban bere guraso, anai-arreba, ta bere jaiot-erriaren gomuta bizi-bizia. Eta barriro arrapatu ta salduko eben bildurrik ez eban, ordurako ba Ingelanda'ko gudontziak (armada) ibilli ebiltzan Apirka'ko itxasoetan, baltz-arrapatzailleak arrapetan, eta samatik eskegiten, eta galerazoten onantxe gizonak gizona aberea lez saltzea.

Ontzigalduko itxastarrei baltzak berberak edesi (relatar) eutsezan jazokun oneik. Esan eutsen, eurei on egiñagaz ordaindu gura ebala zelanbait beste euskeldun batzuk berari egin eutsoen ona.


III

Or idatzi doguna, baltz euskeldun orretzaz esan doguna, jazorikoa da, eta ez inok asmaurikoa. Itxas-bazter artan ontzia galdu ebenak aberrira biurtu ziranean edestu edo kontau eben an jazo jaken gauza arrigarria baltz aregaz. Eta euretariko bati entzun eutsonak niri edestu eustan, eta nik zueri, irakurleak.

On-egintzeak beti dauko bere ondorena, gaitz-egintzeak lez. Zaldun euskotar zintzo arek eta bere sendikoak baltz gazteari egin eutsoen ona, ibilli ta ibilli, euskeldunekana barrero etorri zan.

Euskerea, bere abenda elea, etxean beti erabiltzetik sortu zan euskeldunak geroago aurkitzea laguntza ederra Apirka'ko murtu baten. Olantxe, irakurlea, goratu egizuz beti zeure aberri-elea, aberri-ekandu onak, eta aberri-izake-ra osoa, ta egon eskier (seguro), zeure oiñordeko edo aberkideen (patriota) bat-edo-bati on andia etorriko jako ortik.

Norbere oiñordekoentzako edo norbere erriarentzako on-egintzak bildu ta iztea onuratsuagoa da on-egintza bako diruak baiño bildu ta iztea baiño, lenengo begiradan (mirada) irudi ez arren alan.



JATORRIA

Miru-Torre deritxon etxeak bere ate-buruan ikurdi edo arma-arria dauko, naikoa dotorea. Bertan agiri da miru bat egaz, oillo edo txitapillo baten ganean.

Torre-etxe onen jabeak arma-arri ori maite-maiterik dauko, berau ba, asaba ospatsu batena da, Don Iñigo Gomez de Orroeta y Santxez de Munguru zanari Gaztelako errege batek emonda, berak egindako gauza asko ta andien saritzat.

Etxeko areto edo saloeko buru-aldean agiri da jatorri-zugatza: Enborrean *Don Iñigo*'ren izena ta bere iru semenak lenengo iru adarretan; seme nagusiaren adarretik urteten dira beste lau adar, ta euretan, bere lau semen

izenak; eta onetara, adarrik-adar (edo belaunik-belaun, lenago esaten zan lez), beti seme nagusietatik, *Don Kazinto* gaurko etxaunaganaiño; beronen izena ta bere anaïenak dagoz jatorri-zugatzaren azkenengo abarrean.

Jatorri-kontu au aitatu ezkeru, arro-arrorik asten da Don Kazinto Don Iñigo'ren goralpenak esaten, bere aldian gizon andinetaikoa izan zala, España guztian ezagutua, baita Europa'n be... a lako gizonik!... Eta goralpenen azkena izaten da Don Kazinto'k esatea bera dala arexen jatorrikoa, artez-arte, seme nagusirik seme nagusira; eta edonor eroaten dau etxera bere jatorri-zugatza ikusi dagian.

Asi jakon bein orretantxe Etxe-Txiki'ko mutillari. Errian alogorean ibiltzen zan gizon apal baten semea da. Txikitan alde-egin eban erritik urriñetara bizimoduaren billa; ta zurra ta beargiña izanik, baita zori onak argi egiñik be, biurtu da errira ta etxera diru-moltso polita aldean daula, eta askok uste ez arren, diruek baiño gehiago balio daunagaz: adimen landuagaz, jakitun eginda, asko ta asko irakurri ta ikasia.

Onexen aurrean bein asi zan ba *Don Kazinto* bere jatorria goralduten, eta Etxe-Txiki'ko mutillak dirautso:

— Zenbat mailla dagoz aregandik zukanaiño?

— Amabi mailla. Amaseigarren gizaldi asieran bizi izan zan.

— Zeuk ez dozu iñoiz oldoztu izango zenbat asaba, edo zenbat aitita-amama izan zenduzan *Don Iñigo* orren aldian.

— Ez, ez dot iñoiz oldoztu (pentsatu) orretan.

— Neuk oraintxe esango dautzut.



Ataraten dauz sakeletik ingi (papera) ta lapitza, ta bertan operaziño txiki bat eginda, diño:

— Lau milla ta larogeta amasei (4.096) aitita-amama. Erdiak aititak, 2.048, eta beste erdiak, amamak.

— Orrenbeste?... Ezin izan leiteke!

— Bai, Don Kazinto; lenengo maillan *bi* daukozuz, aita ta ama, ez ba? Bigarren millan *lau*, aitaren aita ta ama, ta amaren aita ama, ez ba? Irugarren maillan *zortzi*, bigarreneko lauen aita-amak. Laugarren maillan *amasei*, ta zoaz aurrerantz onetara, ta ikusiko dozu amabigarren maillan 4.096 asaba dirala.

— Alantxe da. Nok uste olakorik?

— Orra ba, zure asaba ospatsu *Don Iñigo de Orroeta* ori *lau milla ta larogeta amasei*'tik bat izan zan. Tira, ipiñi daigun Don Iñigo'ren andrea be ona izan zala. Eta beste lau milla ta larogeta amalauak, zelakoak ziran? Ez ete egoan ainbesten artean deunga edo lapur edo sorgin edo onakorik?

— Begira gero zer diñozun!

— Ez zirala danak onak, ez gitxiagorik be, ziur esan daikegu. Eta ez doguz aintzat artu amabigarren maillkoak baiño. Ordutik ona mailla guztietakoak, zeure guraso-etaraiño, batuko ba genduz, 8.190 asaba izango zeunkez, amabigarren maillaraiño. Ainbesteren artean gaiztoak asko izan bear. Ez ete eben urkatu (ahorcado) bat-edo-bat bere egintza madarikatuekaitik?

— Baiña ez dakigu, bestearena dakigun lez.

— Jakintzat, Don Kazinto. Urkaturikoen egintzak eta gomutea ez dira joaten bein be sendi edo pamilietan.

— Eta ekin urtatukoakaz!

— Ez zaitez asarratu. Urkatuak diño gaiztoak esatearren. Ondo da, Don Kazinto, norbere asaba andi ta

ospatsu baten gomutea zaindutea, zuk Don Iñigo'rena lez; baiña ez arrotu orregaitik, millaka ta millaka jente ez-ezagunen jatorria daukagu bakotxak eta, jakizu zelakoak izan ziran arek! Jatorri-zugatza bestetara egingo ba litz, norberagandik asi ta atzerantza, sustarrak agirian ipiñi, ikaratuta geldituko gintzazelako jentetxoen jatorria dogun ikusita. Onetara, sustarrrik-sustar urrintxo jatzi ezkeru, uste dot andikiak eta txikikiek ez geunkela alde andirik izan-go: aren baten danok.

— Zuk Miru-Torre ta Etxe-Txiki bardindu egin gura dozuz.

— Bardindu? Alderik ba dago Miru-Torre'na ez da beintzat. Mitu-Torre'koak bizi dira iñok itxi dautsenaz, ez eurak egindako lanaz. Etxe-Txiki'koak, ostera, eurak ondo irabazirikoaz bizi dira. Mitu-Torre'koak, illargia lez, iñok emondako argiagaitik agiri dira illunean; eurak argirik ez dabe, illak edo illunak dira. Etxe-Txiki'koak, ostera, agiri dira edonun, ez iñok emondako argiz euren argiz baiño, eguzkia ta izarrak lez. Beraz, ez etorri nigana destaiñaz. Zu, jatorriduna, ta ni, jatorribakoa, gara; ta orraitik, edozein gizontasun-bideetan zeugaz neurtzeko gertu nago, naiz adimeneko naiz gorputzeko arazoetan; eta orain arte daukoguzan egitadak zeinek gehiago ta obeak nainoz jokatuko dautzut.

Don Kazintok alde-egin eban purrustadaka, ta bere etxerantza joan zan asarrez iñoala:

— Gaur egunean ezeri be ez dautsoe artzen *errespetorik*, iñoz ezer izan ez diranak be geure *parera* eldu gura

dabe, dana dago itzulastuta (trastornado). Ai lenagoko denporak!... Nun ete zarie?...

Etxe-Txiki'k esan eutson barreka urriñeko aldetik:

— Orrek lenagoko aldiok, Don Kazinto, joan ziran sekulako.

ALKAR AITU OBE DA ALKAR IL BAIÑO

(Jazorikoa)

Naparra'ko erri txikitxu baten da, 1876'garren urtean, karlisten ointsuengo guda-azkenean.

Iñurriak (hormigas) lez, ugari dabilz bertan guda-mutil karlistak, aurreragoko gabeen etorrita, Parantze aldeko Euzkadi'ra igaroteko ustez.

Euretatik ia guztiak gaztelarrak dira; euskotarrik, banakaren bat izan ezik, nekez aurkitu lei an.

Diru askorik ez dago gudamutil arein sakeletan, baiña orraitik jokoan daragoioe (diardue, ari dira) alde guztietan. Eleizearen ondoko zugatz andiaren gerizpean agiri da aldra azitxo bat; bertan dabilz gogor jokoan, "txapeta jokoan".

An dira añenak (blasfemias), deadarrak, eztabaida andiak, begirakuna itzelak eskua baionetara eroateak!... Otsoak “txapetan” jokatu al ba lebe, ez leukie ainbeste urrumada ta agin-erakuste egingo.

Baiña zemakun (amenaza) asko izan arren, ez dira eskuetara sartzen, bertan dagolako euren *oillarra*, andaluztar sarkento bat, mutil morrosko andia, baltza, begirakun itzalduna, belearen lumea lakoxe *patilla* baltzak daukozala arpegi alboetan.

Onexeri dautsoe bildur, berau egin da ugazaba, beronek epaia emoten dau eztabaidetan; bere nausitasunaren ikurkia (señal) an dauko lurrean *sartuta*, arrabete ta erdiko aizto (cuchillo) zorrotza, birrist argi egiten dauna; jokatu gura daunak, beroni emon bear dautso onenbesteko bat.

Joko oni begira dagoz euskeldun bi, bata markiñarra ta bestea Durango aldekoa.

Ikusirik markiñarrak sarkento *oillar* arek dirua kentzen dautsela jokolariei, berak jokatu barik, itanduten dautso bere lagunari ia zegaitik dan a.

— Ori dok —darantzutso lagunak—, *baratoa kobretea*; alan esaten joek eurok. Iñok emon gura ez ba jautsok, berorregaz bizia jokatu bear jok aitzokadaka. Berori dok, itxuraz, errimeena orretan, bere bildur dozak, iñor ez dok azartzen (atrever), eta ixil-ixillik egiten joek bere esana. Iñok gura bai jok ori *oillartzañik* kendu, beste aizto bat sartuko lieukek beriaren ondoan, eta olantxe adirázoko lieuskiok narrua jokatu gura daula ta bere nausitasuna kendu gura dautsola.

ixildu dira guztiak, euli baten burrundadea entzun leike; markiñar mutillari begira-begira dagoz ikaraturik, an zek jazo bear daun; sarkento andaluztarra arrituta lez geratzen da unetxo baten, eta bereala, arpegi ta begiak ikaragarriro jarririk, asten da deadarka:

— *Corro, corro!... Mardita zea!... Oigasté compárito, oté zabe bien que é lo que ezo zenefica?*

— Barriketa gitxi jo niri —esan dau markiñarrak, bere aiztoa lurretik artu ta bestearen aurrean jarririk edozetarako gertu.

— *Oté? no jabla en cristiano?... ¡Güeno!... Vamo j a vé zi noj entendemo... Zu jakin... ori... zer?*

— Bai, ba-jakiat... nai ba dok ementxe, edo nai dokan lekuan...

Andaluztarrak igarri dau aregaz *ordago* jokatu bear dala, il edo erail egin bear dala, beste biderik ez dagoala; aren begietan agertzen dan gogo sendoa ez dagoala atzeratzerik. orduan, deadar ta beso-erabilte ta aiko-m iko andiak egiñik, zabaldu dau asko guda-mutillen arteko utsunea, ta beronen erdi-erdian geratzen dira *oillar* biak; baiña aitzokadaka narruak zulatu bearrean, txutxu-putzu itz egiten dautso andaluztarrak markiñarrari, onek baietz diñola buru ta guzti, ta gero:

— *Vá a zegi ér juego... ezte cabayero y menda cobramoj er barato... er que no eté conforme que lo iga, y ze le dará lo zuyo...*

Andaluztarrak ixil-mixil esan dautsona markiñarrari da, alkar ilten ibilli barik, *baratoa* erdi-bana artzea obeto ez ete deritxon, eta besteak baietz ba.

Onantxe bildu eben ainbat txanpon euskeldun mutil biak. Erri bertatik biurtu ziran euren etxeetara, ta biderako naikoa euki eben. Berriz'en alkarri agur egin eutsoenean, askari (merienda) on bat eginda, ondiño be apurren batzuk banakatu ebezan.

OR DOZU OSPEA TA BETOZ DIRUAK

(Jazorikoa)

Edonok daki, buru pitin baten jabe bada beintzat, ospe onak uste dan baiño diru gehiago balio izaten daula. Ospearen billa ikusten doguz dabilzala gizonak euren alegin guztian, eta ospe ori diruaz erosi al ba dagie, sarri jazoten dan lez, bape zalantza (duda) barik emongo dabe dirua, ta ugari, ospearen orde.

Arau onek, orraitio, auste bat izan eban, nik orain edestuko dautzuedan jazoeran. Bertan ikusiko dozue ospeare orde dirua artu zala, ta, pozik artu be gero!

Karlisten lenengo gudatea da. Naparra'ko erritxu baten, goizeko amaikak inguruan, karlisten Durango'ko bata-

lloia sartzen da. Ba da errian ugari usubilloa (rumor) ta zaratea; mutikoteri guztia batalloiari bidera urten jako, ta bere aurrean dator urduri; errian, ate ta leioak beterik, emakume ta gizonak begira dagoz poz-pozik. Txakurrak, etxe-barruetako ariñeketan sartuta, bertatik ausika dabilz garratz.

Sartu dira ba Bizkai-mutillok txairo ta lerdan, gelditu dira plazan, beronen lau aldeak euren erreskadakaz beteten dabezala, ta bertan, korneta otsera, lerroak ausi, ta sakabana-tuten dira errian. Erriko nausiak banakatu dautsiezan okela, ogi ta ardaoaz bazkaria atondu dabe, baita irunsi be egundoko ariñen.


Pelota-leku polita dago errian, eta eguberdi-ostean asi dira guda-mutillak bertan batzen. An dabilz eurak euretara pelotan. Nastau dira eurakaz erriko gizon batzuk be. Oneik, guda-mutil arein artean ba-dala pelotarako zaletasuna ikusirik, esan dautsie erriko abadea dala eskuz pelotaririk bikaiñena, ez dala agertu ondiño ari irabazi dautsonik.

Au entzunda asi dira mutillak euren artean esaten ez ete leion ba jokatu abade areri; ba-dagozala mutillak an ederto jokatzen ekienak; ipiñi egin bear jakola partidua, ta onan. Adirazo dautsie ba erriko gizon arei, abadeari nok jokatu ta nok irabazi ba-dagola, ta gura izan ezkerro, eurak gertu dagozala.

Errikoak ezin dabe siñestu ori, ta joan dira abadeagana; etorri da berau be pelota lekura, ta laster asmatu dabe partidua, onantxe: abadea alde batetik eta Durango'ko mutil bat bestetik, eskuz, biak bardiñean, ogetalau tantura.

Partidua ikustera batu dira bertan erriko gizonik gehienak eta ia batalloi osoa. Abadeak esan dautse guda-mutillai zenbat-nai diru, bi bati jokatuko dautsela; ta oneik erantzun dabe, aldean daroiezan diru apur guztiak batu ta jokatuko dabezala. Auxe egin eben: guda-mutil bik batu eben euren lagunen diru guztia, batak zorrotxu baten arturik eta besteak bakotxarena zenbat dan ingi edo paper baten ezarririk. Amaseiko bat izan da batu dana. Abadeak bere alde jokatu dauz amaseiko bi.

Pelotakea asten da. Biak dira onak. Abadeak indar gehiago dau, bizi-bizi jaurtiten dau pelotea; batez be eroso artzen daunean, keia ataraten dautso. Bere besagain-joteak, zelan txalotzen dabez bere erritarrak! *Vaya qué bratico!* dioe, erdeldunak dira ba erri artan.



Durangarra azeriagoa da. Onek egiten dauna da eutsi, alik gitxien indarrak erabili, geroko gorde bere indarrak eta bere trebetasun edo abilidadea, bere aurkaria nekatu.

Abadea eldu da amasei tantura, ta mutilla dago sei tantuan ondiño. Oni bere lagunak diñotsoe: “A mutil, zer darabik? Olan uste dok irabaztea?”, eta berak darantzu (erantzuten dau): “Erabilliko joat”.

Asten da mutilla guztira-jokua egiten, ta indartsu: orma-biak, zear-pelotak, itxiak, luzeak, orma-urreratuak... joko ederra, ta beti pelotea leku txarrean ipiñi besteari. Alditxu bat oso neketsua darabille biak, eta jezarten dira puskatzen arnasa apur bat artzeko, abadeak 18 tantu dauzala, ta mutillak 15 ta atarea. Igarten asi da abadea mutila bera baiño gehiago dala, edo beintzat, irabaziko ete dauson bildur andia sartzen jako, ta bestela-baitakoan ba-diñotsa mutillari, ez leukela partidua galdu gura ezetara be, errian eta inguruetan daukon pelotari ospea ez galtzarren, ta beraz, irabazten izten ba dautso, beste amaseiko bi, jokatuen ganera, emongo dauzala, guztira lau amaseiko. Mutillak darantzutso bere aldetik gertu dagola orretarako, baiña lagunak jakitun ipiñi bear zituala.

Ixil-mixilka ibilli barik, durangarrak esaten dautse deadarrez bere lagunei: “Mutillak, onek auxe ta auxe yiñok, zer deritxazue? Galdu egingo joat partidua, ala ez?”.

Danak gogo batez erantzun eben: “Galduik! Galduik! Guk ospea zetako bear jöagu? Lotu egiozak amaseikuok”.

Ituntze edo alkar-aitze au, jakiña, euskeraz izan da, eta errikoak ez dabe ezer ulertu, len esan dodan lez nappar-erdeldunak diralako angoak.

Durangar-mutillak adirazoten dautso abadeari ba, nasai jokatzeko ta nasai egoteko, partidua irabaziko daula-ta.


Asko gogortzen da abadea orduan; ta besteak, ezin-antzak eta guzur-alegiñik asko erabillirik, amaitzen dabe partidu ori, abadea ogetalaura eldurik, mutillak amazortzi daukozanean.

Errikoak amaika txalo ta gora jo ta egiten dautsoez euren abadeari; a lako bat ez dagola Bizkaian esaten dabelarik. Poz-pozik geratu dira.

Guda-mutillak, ostera, ipiñi daben dirua jaso, ta ganera, lau bidar gehiago dabelako, pozaren pozaz praktetan artu eziñik dabiz, ospeagaitik bape ardurarik ez dautsela.

Abadea bera be pozik, lau ontzako kosta jakon arren, bere pelotari-ospea zutunik daukolako ondiño.

Orra danok pozik, arazo baten danak pozik gelditzea gauza eziña dala esaten dan arren.



AZERIARI AZERIA

I

Bere etxearen ortuko txoko edo bazter baten zoratuta lez ebillen Anton Berakatz, urrumaka, esku biakaz buruari elduta, illarrak (arvejas) lakoxe negar-arpuluak begietatik jausten jakozala, atzera ta aurrera iñun geldi egon eziñik, zein eta lurra erre bai leutsozan bere oiñazpiak; eta intziri ta urruma bitarteetan erdi-tartaka miin motelaz esaten ebala:

— Ai ene bada ta ni!... Ai nire errukarria!... Zetarako nago ni orain munduan?... Neure Jaungoiko laztan, Aita ta Seme ta Espiritu Santua, Ama Birjiña bihotz berea ta errukiorra, neure izeneko santu Antonio miraritsua, ta zeruko santu-santa guztiak!... Arren! Erruki zakidaze ta

lagundu eistazue neure ordu gorri ta larri onetan!... Zein txakur izan da nik emen ain ondo gorderik neukan okela zatia sumau dabena?... Nor arraio, bai, nor milla arraio izan ete da niri emendik diru biribil polit ederrak ostu daustazana?... Ainbeste urtetan apurka-apurka ta nekearen nekez aurreturiko eun ogerleko zuri ederrak, nun ete zagoze?... Esakerea da osturiko gauzea bere jabearen dei egoten dala... baiña nik ez dantzut iñundik be deirik... ai ba nentzu!... laster niñoake zuekana, ogerleko maiteak, oillo lokea bere txitakana baizen egudo!... Milla ta bosteun tximistak birrinduko al abe, lapur deunga zital madarikatua!

Esakune (dicho) onekaz atera-bidea emon eutsonean bere atsekabe ta asarrearen lurrinari, nasaitu jakon zerbait bere barrua, ta jezarri zan iko-zugatz baten azpian, eta ordurarte baiño arte gehiagogaz asi zan gogoketan:

— Zoritxarreko nire arazo au ez da zarataka zuzendutekoa; ixil-ixillik eta bestela-baitakoan atrapa bear da, atrapatekotan! Nire diruekana eldu dan azeri zarra... nor ete da bera?... un!... eingo neuke orixe alboko belarrimotza izan dala... demoniñoa!... orixe izango da bai!... orren etxeko teillatupeko leiotik agiri da diruak gordeten nebazan tokia; iñoz ikusi egingo ninñuen orrek lurra aztertu ta ogerlekoren batzuk antxe ipinten ibilli nazanen baten... bai!, orixe da... berori da, bai... ziur.

Arnasa luze bat eginda, ezker aldera gurputza okerturik ipiñi eban luze-luze eskumako ankea, ta beronen prakasakeletik atara eban toxa edo tabakorri-ontzia; zabaldu berau ta artu eban barrutik zigarro-paper liburutxu okertu ta tximurto bat, kendu eutson orri bat eta ipiñi eban dingiliz beko ezpanetik; itzuli eban gero ezkerreko eskura zigarro

batentzako lain tabakorri, ta ganean eskumako eskua jarririk erabili ebazan apur baten esku biak errotarren antzera; biribildu eban gero taketa lakoxe zigarro lodi ta gogor bat; eta ezkerreko praka-sakeletik ardaia (yesca), galtzairua ta suarria (pedernal) atara, ta, kaisk eta kaisk, zati baten inardun (jardun) eta gero, ixetu eban ardaia, ta onegaz zigarroa, pautadaka, ta musturra luzatuta.



Zigarroa egiteko ta berau ixetuteko bear izan ebazan tresna guztiak gorde ta gero, ipiñi ebazan besoak gurutzetuta belaur ganetan, eta pauta ta pauta, beti be zigarroari ke moltso andiak ataraten eutsozala, zati baten geldi-geldi egon zan, aurrealdeko arri koskor bati begira-begira. Arraioren bat agin artean esanda jagi zan noz-edo-noz, ta alde egin eban andik Anton Berakatz'ek, belarrimotzaren etxerantza begiratuta esanaz:

— Ikusiko joagu, ba, nor nor garean.

II

Diruak ostu eutsoezan egunetik aurrera, inoz baiño kantariago ta argiago ebillen Anton Berakatz, batez be auzoko belarrimotzagaz; onegaz barrukotasun (confianza) andia artu eban, eta barriketaldi luzeak izaten ebezan alkarregaz, antxiñeko adiskide ta lagun zarrak izan ba litzaz lez.

Gau baten, apalduta gero, ate ondoan preskuran, sillea atzerantza orma ondora eginda, bere oiñak aurre-aldeko gorengo zotzean ipiñita, beso-utsik eta eurok eunduta, burua orman, eta ezpanetan zigarro-mutxikin bat ebala, *Sanchez* belarrimotza *petenera* bat agin artean kantetan inarduala, eldu jakon Anton Berakatz eskuetan sillaategaz, ta bere ondoan jarten zan artean esan eutson:

— Kaixio Txantxes, gau-aro ederra dago.

— Ola Berakatz, ederra gaba.

— Eta... zer diño ba paperok?

— Gitxi gauza. Bilbon bankero bat egin kiebra; eskapau Amerika'ra; palmo bat sur itxi akredoreak.

— Artzekodunak ago-bete agiñegaz geratu dirala esan gura dozu, ezta?

— Bai, ori.

— Neu ez nindukie arrapatuko orretariko banko ta drogetan; ez, ez, dirua norberak gorde.

— Bilboko Banko edo España'ko Banko edo Caja de Ahorros (Aurrezki Kutxa) ez dago bildur, gizona.

— Baiña, Txantxes, norberak eukitea da onena, ez deritxozu?

— An be seguru egon, eta ademas interesa artu. Etxean lapurrak sartu ta...

— Ez euki etxean! Beste leku baten baiño. Nik neuk beintzat aurreztu izan al dodan diru apurra, ondo gordeta daukot, iñok jakin ezin daiken tokitxu baten.

— Bai? Asko diruak e!; Berakatxa? (*Este no sabe nada*).

— Asko ez; zugaz ba dot siñestasuna (confianza), ta esango dautzut eun ogerleko daukodazala toki orretan. Lengo egunean salduriko txalaren ogetabost ogerlekoak be, biar artuko dodaz ta antxe ipinteko ustea dot. Korridurik ez dot artuko, baiña ez daust ardura; Banko baten ipiñi ta gero... ez korritu ta ez diru barik geratuko ete ninduken bildurrez lorik be ez neuke egingo ta...

— Bai, Berakatxa, asko errazoia euki zu. (*Rediez, hay que animarle*). Poblaziñoetan pillo asko egon, aldeanoak engañau, atara dirua, esan interesa emon, gero dana artu dozu eurentzat, egin kiebra ta bapez itxi zuri. Bai, Anton, gorde ondo dirua (*para mí*).

— Bai ba; urteak dira asi nintzala dirua gordeten alantxe; ta biar edo etzi ogetabost ogerlekoak ipintera joango nazan lez, iñoz diru-zati bat ipintera noanean bakarrik begiratzen dautset; nasai-nasai dot neure gogoia, ezeren bildur baga, seguru dagolako.

Apurtxu baten barriketan egonda gero, alkarri gabon esanda aldendu ziran bakotxa bere etxera. *Sanchez'ek*,

ogeratu orduko, abots zorrotz-zorrotzagaz *malagueña* luze bat bota eban bere etxe barruan, eta Anton Berakatz'ek iñoan:

— Pozik abil... jausi bear dok urrean.

II

Biamonean, bere ortuko txokoan zoro-zororik ebillan Anton, artazika dantzan zatitu bearrez; jaurti eban santzo bat, iru kilometroen inguru barruan entzun izan izango zana. Ak eukan poza!

Eukiteko zan; eguna zabaldu orduko jagita, joan zan bere diruen gordelekura, ta... antxe egozan eun ogerlekoak, *Sanchez*'ek gau artan ipiñita, txalaren ogetabostak be artzeko ustean.

“BEARRAK BEARRA ERAGIN”

(Jazorikoa)

Gaztetxoa nintzala (18 urte) Madrid'era neure ikaskuntzak asteko eldu nintzan egunean, bizi-bizi gomuta dot, illuntze baten bertako “Café de la Iberia” (Carretera de San Jerónimo) akeitetxean ikusi nebala neu baiño seien bat urte zarragoa zan mutil polit, argi-argi, guztiz begikoa, bere lagune alde-agurra egiten, bere aberri Euzkadi onetara etorrelako bere karrera amaituta.

Txera andia egitsoen danak, pozarren erakusten eutsoen euren zorion-opea; ez zan besterik entzuten: “Ori da mutilla, ori!”, “mutil adimen argiduna”, “oso lagun-artekoa”, “lagun maitekorra”, “beargiña”, eta onelako esakerak

baño. Bertan aurkitzen ziran guztiak alkarren leian ebiltzan axe mutilla goralduten.

Neure ezagun bati itandu neutson ia nor zan a mutilla, ta erantzun eustan:

— Mutil orrek bere karrera zelan egin dauan ba zenki, ikaratu egingo zintzakez.

— Pozik entzungo neuke, ta iñora joan bearrik ez ba dozu, arren, edestu egistazu —esan neutson nire ezagun ari.

— Orra, ba: mutil ori gipuzkoarra da, ain erritakoa. Bere gurasoak ogasunetan (en bienes) ondotxo dagozanak dira. Adimen argi-argia dau mutil orrek, zur-zurra da, ta batxiller ikastaldian beti goirengo maillea, *sobresaliente*, arrapetan eban, urtean-urtean saria bereganaturik. Batxiller-agiri edo titulua be dubarik (debalde) atara eban. Jakiña da, bere gurasoak txotxatuta egozan beragaz.

— Egoteko da, orrelako seme bat euki ezkeru.

— Eta ikasten zolia ta azkarra izanaz ganera, mutil au zan ekandu onak ebazana, etxeratua, esangiña... ez eukon ekatsik.

— Zein karrera egin dau?

— Osakigiña edo botikarioa. Aitak ekarri eban Madrid'era lenengo urtean, ostatu-etxe on bat idoro eutson, eta adiskide *bankero* bategana mutillagaz joanda, beronen aurrean esan eutson ari:

“Ikastaro edo kursoaren amaieran kontuak egingo doguz, eta artean, beronek eskatzen daun beste diru emongo dautsozu oni”.

Bankeroak adirazo eban, ori gehiegi izango zala, bear bada, gazte batentzako, ta aitak erantzun eutson:

“Ez dago bildurrik, neure buruagaz baiño siñespen gehiago dot beronegaz”.

Alan itzi eban mutilla Madrid'en, bere-buru zala, ta dirua nozgura ta zenbat-gura atarateko eskubidegaz.

— Arranoa! Ego andiak dira orrek.

— Andiegiak. Gaztea zan lez, mutillak ez eukon dirua-ren maitasunik eta eskuetatik igarri barik joaten jakon. Ainbarik geratzen zan bakotxean, bankeroagana joan, eskatu, artu ta kitu. Lenengoetan lotsatzen zan pizkat; gero, ekanduan sartu zan apur-apurka, ta erruki barik eskatzen eban dirua. Andik illa bigarrengo, andiki bat lez bizi zan. Jakiña, ikastea asko galdu eban bizimodu ain ederragaz.

— Eta ustel atarako eban bear bada azterketan.

— Ez, ba. Bere ikaste-atalak (asignaturak) ondo atara ebazan, baiña ez goirengo maillan, batxillerrean lez, berengo maillan baiño; ozta-ozta ondo urten bakarrik. Ikastaro guztian dirutza andia eralgi (gastar) eban; berak ez ekian zenbat, bein be ez eban iñungo ingi edo idaztitan jarten bankeroari eskatzen eutsona. Diru asko zala baiño ez ekian, asko. Joan zan etxera, ta an bere aitagaz jazo jakona sarritan berak edestu dausku.

— Bekoki ederra ipiñi izango eban aitak urteko gastuen kontua ikusi ebanean.

— Etxera elduta, bildurez ei ebillen berau, itxaroten noz aitak artuko ete eban zarataka. Andik lastertxu aitak bere idazkelara (oficina) deitu ta esan ei eutson:

— “A mutil, urlia jaunak (bankeruak) bialdu jok urteko ire kontua, ta oker egon bear jok, ainbeste ezin izan leikek. Idazten naioak berari kontua barriro egin daiala; baiña idatzi orduko, itandu egin gura dauat. Ara bere ingia (papel). Zer diñok?”

Eta mutillak orduan esan eutson:

“Nik ez dakit zenbat dan, ez dot erabilli konturik eta. Berak ori ipiñi ba dau, egia izango da”.

Aitak au entzunda ba diñotso:

“Konturik erabilli ez arren, gitxi gora-bera gomutauko dok orraitino aldi ezagunetan zenbat eskatu euan. Esaterako, emen jagozak Aratoste-egunetan eskakizun bi, bata milla laurlekokoa ta bestea bosteunekoa”.

“Bai, ori egia da” —esan eban mutillak apal.

Aitak orduan igarri eban ez egoala okerrik bankeroaren kontuan, eta esan eutson semeari otz-otzik (friamente), ezer jazo ez ba litz lez:

“Orixe jakin gura izan joat. Onek ez jaukok ordaindutea baiño besterik. Tirok, joan aiteke”.

— Gizon otza da benetan aitori. Beste askok bere lekuan, a zelako agirakak! Eta agiraketan bakarrik geratuko ez litzakezanak ez gitxi.

— Mutillak uda guztian ez eutson ikusi aitari asarrearen izpirik be. Arrituta egoan. Eldu zan irailaren azken-aldia; urrengo illaren lenengokoan ikastaroa asi oi dan lez, aldi orretantxe joan oi dira ikasleak euren ikastetxeetara. Gure mutil au bere aitari Madrid'erako joatea aipatuten bildur ta

lotsa zan; baiña esturan, illaren 25'g. eguna eldu zanean, lotsaka ba zan be, zuzendu zan aitagana, ta:

“Aita, onezkero bost egun baiño ez daukodaz matrikulak egiteko, ta Madrid'era joan bearko dot”.

“Bai, ene semea —erantzun eutson aitak—, matrikulatu bear ba dok, erreski (sin duda) arin ibilliko az”.

“Orduan, ba deritxozu, gaur arratsaldeko trenean urtengo naz”.

“Euk nai dokanean”.

Mutil orrek poz-pozik gertatu ebazan pardelak, eta bariro aitagana joanda dirua eskatu eutsonean biderako-ta, aitak erantzun eutson barreka:



“Dirua nik emon iri! Lotsarik ba dok eske etorteko, igazko ikastaroan bost milla laurlekotik gora ostu eustakazan-eta? Ez, ez, nire dirurik ez dok ikusiko”.

“Orduan, zelan joango naz ba? Zelan biziko naz an?”.

“Ori eure ardurea dok, or konpon”.

“Baiña orretara karrera laga bear”.

“Laga edo eutsi, euk egingo dok nai dokana, orkonpon adi. Neu bizi nazan artean, beintzat, ez daukok nire txanponik”.

Estutu zan mutilla onegaz, ta zolia dan lez, laster erabagia artu eban. Bere ama, izeko, osaba, adiskide ta enparauak diru-eske arakatu ebazan, amabost-ogei bat ogerleko alan baturik, eta biaramonean Madrid'era etorri zan. Lenengo aldia txarra igaro eban, baiña bearrak bearra eragin eutson. Botika-mutil jarri zan, eta ganera, ostatu edo ponda bateko idazkigintzea (correspondencia) bere gain ertu eban, eta onetara atara eban naikoa jan ta janzteko, baita bere ikasteak egiteko bear ebazan liburuak-eta erosteko be. Onantxe, egun guztia zeregiñez beteta eukirik, ez eukon txarrerako astirik, eta asko zindotu zan. Bigarren ikastaroa amaieran, batxiller-aldiko maillak barriro arrapau ebazan. Lenengo ikastaroan estalduriko lengo mutil zoli adimen argiduna ta era batez ikasi-zalea, barriro agertu zan.

— Balioko mutilla da orraiti.

— Bai bein! Beronek egin ebana ikusita, amak eta izekoak eta senitarteko enparau emakumeak eskatu eutsoen aitari, lengoak aztu ta lagundu egin bear jakola mutillari.

“Gizajoa! —esaten eben—, aurten ak egin daun lana, bere ikasteak *sobresaliente*’gaz amaitu, ta bizi-izateko bear izan daun guztia berak irabazi, etxetik txanpon bat bialdu ez jakola; aulduta egon bear gizajoak”.

Baiña aitak erantzuten eban barreka: “Bai zera! Lengo urtean ipiñi gendun mutilloi zer-nai ta axe aukola, eskura dana emonda, ta polot (porrot) egin euskun; aurten, ezer emon barik, bizkortu da ta goitik jarri. Zein da biderik onena? Esan bearrik ez dago. Kirten osoa izango nintzake ta semeari kalte andia egingo neuskio, orain daroan bide artez ori ausiko ba neutso. Ez olakorik!”.

— Zuzen egoan aitori, bai...

— Emakumak otoika ta asarreka ta negarka ibilli jakozan arren, aita gogor egoan, ezin izan eben bigundu, ez eutson semeari dirurik bialtzen. Eta mutil azkar onek guztia onantxe egin dau; berak bakarrik, etxeko laguntasunik baga, ta ederto, beti goiko mailletan; osakigin-agiria (diploma) be, batxillerrekoa lez, dubarik atara dau saria irabazita.


— Asko balio dau, bai, mutil orrek, beroi lakoak ondo urri izango dira; baiña bere aitak be balio dau.

— Mutillak berak diño aitari zor dautsola dana; bigundu ba litz, eta dirua emoten asi ba litzakio, bear bada bide txarrera barriro jota, ez ebalu gauza onik egin izango.

— Orain danak pozik.

— Mutillak esan dauskunez, aitak jakin eragin dautso gertu dagola bear dan dirua emoteko mutillak gura daun tokian edo urian osakitegi (farmacia) görengotaiko bat ipinteko.

— Edesti (historia) polita da.



ARDAO-ZALEAK POLTSEA GALDU

(Jazorikoa)

Burdinbideak asmatu baiño lenago, Bizkaia'ren zati andi batek (Bermeo'tik Ondarroa'rañoko itxasaldea, Gernika ta Markiña-aldeak, Zornotza ta Durango-aldeak) Araba ta Gaztela aldeakaz euki oi eban saleroste, artu-emon ta joan-etorri guztia Durango'tik Gasteiz'era doan bidetik egiten zan, Urkiola, Otxandio ta Legutiano (Villarreal) zear.

Orduko aldietan bide orretatik oiñez, mandoz, zaldiz ta burdiz, atzera ta aurrera, guztiz ugari ibiltzen ziran notiñak (pertonak).

Urkiola'tik Legutiano'ra bitartean, bitxabalaren alde bietatik urrineraiño, oian edo baso zarratu zabal andiak egozan, eta orain baiño askozaz etxe gitxiago. Oian andi orreitan ugari ezkututzen ziran basalapurrak, eta al eben aldi guztietan, bidera urten, bidaztiak gelditu, eurekaz eroan basobarrura bear ba zan, eta, jakiña!, aldean txanpon barik izten ebezan murri-murri (sin céntimo).

Aldi aretan gorda-zibillik ez egoan, baiña ba egozan mikeleteak bideak zaintzeko. Oneik gehienetan bidez-bide ibiltzen ziran lez, ondo zainduak izaten ziran. Lapurrak beti jakiten eben mikeleteak nundik nora ebiltzan.

Orregaitik, mikeleteen uste andirik euki ez da, burdidunak alegintzen ziran alkarregaz batera ibilteko, alan indar gehiago egiñik lapurrai aurre emon al izateko. Sarri ibilli oi ziran alkarri tiroka lapurrak eta burdidunak.

Egia da, beti be, lapurretak asko ta lotsabakoak izaten ziranean, eta batez be, notin ezagun edo andikien bati ostuten ba eutsoen, etorten ziran mikeleteak indar andiagaz, alik zeatzen arakatzen ebezan baso guztiak, lapurren bat edo beste arrapau, ta enparauak uxatuten ebezan urriñetara. Orretariko garbi-aldi baten ondoren bake gehiago izaten zan bideetan; baiña gero, apur-apurka, bat orain eta beste bat gero, agertzen ziran barriro lapurrok, eta ibilli ta ibilli, azknerako lengo moduan.

Eta gauza oargarria: ez ei zan ibiltzen or lapurrik erdeldunik; danak ziran euskeldunak. Erdeldunik iñoz oar-kabe (inesperadamente) etorten ba zan alde orretara, egundoko ariñen alde-egin bear izaten eban, narrua zulatuta bertan itzi gura ez ba eban. Mutil onak ei ziran, ba, gure lapurrak orretan!

Beste gauza oargarri bat: naiz Durango-aldekoak izan, naiz Arratia'koak, naiz Orozko-kuak, naiz Larrabetzu'koak naiz Bizkaiko edozein aldetakoak, berealaxe ikasi ta erabilten ei eben gipuzkerea (Gipuzkoa'ko euskerea). Euren izkeratik danak kiputzak ei irudien. Ori izango zan, gure ustez, urriñekoak zirala siñestu erazotearren.

Guk zarrai entzunda dakigunetik, Napoleon'en gudate-tik karlisten lenengo gudaterarte izan ei zan lapurraldi itzala. Euliak baiño ugariago ei ebiltzan. Azkenerako alkarren aurka jarri ziran, danentzako beste zer-ostu ez egoalako, ta burruka ta zaparrada askotxo euki ondoren, iru edo lau aldratan banatu ziran, aldra bakotzak eukola bere mendean bidearen zati bat, antxe lapurretan ekiteko; ta aldra orreita-koa ez zanari ez eutsoen izten an lapurretan egiten. An ez zan laketzen (permitir) lapurrik euren aldetakoa baiño.

Lapurren artean iñun baiño agintari-bear gehiago izaten da; ta beraz, aldra bakotxean buru edo nagusia eukiten eben, eta onen urrengo beste mailla bat egiten eben bik edo iruk, bere barrukoagoak ziranak, eta enparau guztiak egiten eben berengo maillea, "lapur lauak" esango ba gendu lez.

Oneik aldrok, gehienetan, onetaraxe lan egiten eben euren lapurrerietan: lapur lauak edo berengo maillakoak jarten ziran or-emen bitxabala jagoten, batez be zear-biderik asten zan tokietan, gelditu erazoten ebezan bidazti gzutiak, eroan basobarrura, lotu antxe zugatz-enborrai, eta onan batzen ebenean talde azitxua, etorten zan aurakana aldraburua zan lapurra, manta bat zabal-zabal ipinten eben lurrean, bidazti arrapatuei agintzen eutsien botateko araxe euren poltsak, eta gero arakatuten eutsiezan ondo euren sakelak eta jantziak badaezpadan.

Onetara lumatuta gero, edontzi edo baso-batena ardao eskiñi ta emoten eutsien ostutakoei, atsakabea zelanbait arinduteko edo.

Lapurrak onetariko ekandurik iñun daukenik, edo euki dabenik, ez dogu entzun sekula. Antza danez, onetantxe be, lapur izaten be, euskeldunek berarizkuak izan dira, euren antza ta ez iñorena euki dabe, iñor ez lakoak izan dira.

Ardaoa eskiñi diruak kenduta gero!... Asmakizun errukorra!... Beste leku batzuetan diruakaz batera bizia be ardura asko barik kentzen ei dabe.

Bai, antxe lapur-tokian polito-polito eukiten ei eben zaragi ederra (au be ostua izango zan, zer esanik ez dago) bere astotxoan dotore.

* * *

Ba, onakoxe aldi baten, bidazti-taldea batu ebenean, eta poltsak eskatu eutsezanean, eta gero sakelak eta jantziak zeatz arakatuta, ardaoa emoten asi ziralarik, jazo zan gauza barregarria, ara:

Bidaztien artean egoan aguretxu bat txiro jantzita, buruan tximela (gorro) ebalá, aldi aretan oiturea zan lez; berau etorren Legutiano'tik, an eukozan etxe bien urte-sari edo errentak artuta; poltsak botatea agindu zanean, beronek esan eban ez eukola ezer, bera txiro bat baiño ez zala; sakelak eta jantziak arakatzea izan zanean be, ez eutsoen ezer idoro; ez eutsoen ezer kendu, ba; ardaoa emotordua eldu zanean, lapur bi asi ziran alde banatatik pitxerkada ardaoa ta edontziak eroiezala, edontzia bete ta emon bidazti bakotxari; aguretxuaren txanda edo aldia izan zanean,



lapurra aurrera igaro zan oni ardaorik emon baga, ta au ikusi ebanean agureak, ardao-zalekeriak jota, esan eutson:

— Lapur *jauna*, niretzako ez dago ardaorik ala?

— Lapurra... ta *jauna*? Or dezu ori ba!

Zartadeaz tximela burutik lurrera bota eutson, eta antxe agertu zan aguretxuaren poltsea. Gizajoak antxe eukon polito ezkutauta, eta izan ez ba litz bere ardao-zalekeriagaitik, ez eutsoen kenduko. Jakiña, agertu orduko eskua ezarri eutsoen lapurrak poltseari barreka, ta orduantxe bai eskiñi eutsoen ardaoá, esanaz:

— Oraintxe bai emango zaizu ardoa gogo onarekin. Ar zazu, aitona, ar zazu.

Agurea negar baten egoan eta ez eban entzun gura ardaoaien izenik be. Bera negarrez egoan artean, lapurrak eta beste bidazti gzutiak barreka egozan.

Zalekeriak ez dakar bein be gauza onik eta.

ATXURI'KO "MILAGRUA"

(Jazorikoa)

Emen edestuko doguna jazo zanetik ona urte asko igazi (pasar) dira.

Orduan Bilbao'k ogei milla inguru biztanle baiño askoz gehiago ez ebazan-Geroago Begoña'ri artu dautsozan zatiak ez eukozan ondiño. Abando be aske zan, erri banakoa. Beraz, Bilbao erri txikia zan, eta biztanle guztiak alkarren ezagunak ziran. Ez egoan orain dagon beste *guardia municipal*, naikoa ziran iru edo lau txinel (alguacil) erria zainzeko, gabezko *sereno* kantari batzukaz.


Onelako erri baten aituten da erraz egin leitekela emen

edestuko dogun barrabaskeria, erri guztia barre baten ainbat egunean euki ebana.

Bilbotar barregarri batzuk iragarri eben bertako izparringi baten, ez dakit nungo erritan il²sala atso aberats bat, eta milla ogerleko batzuk itzi ebazala Bilbao'ko erren edo kojoei bananduteko, atsoa be errena izan zalako ta Bilbao'n jaioa, diru ori bananduko jakela Atxuri'n, etxe bateko atarian, bertan aurkeztuko ziran erren bilbotarrai, onen egunetan eta onen ordutan.

Bilbao'ko txiro ta gosakillen artean ikara andia eragin eban iragarki orrek, eta egun batzuetan ez zan izan beste izketagairik auxe baiño.

Eldu zan eguna. Atxuri'ko etxe aretan agiri zan atarian mai bat, beronen ganean tintontzia ta ingiak, iru jezarleku,



bazterrean zorro batzuk zerez edo arez beterik, eta iru edo lau gizon, piperra baiño serioago, alkarregaz izketa ixiltsuan, atarian batera ta bestera ibilli ebiltzala eperdi-ganean eskuak alkartuta.

Goiztxo asi ziran kojoak agertzen kalean. Gehienak etozan makulu bigaz ta anka bata dingiliz; ba ziran etozanak eperdi-ganean erdi-tatarez; baita burtxoietan (burdi-oietan) etozanak be iñok bultzaka eroanda. Danak zurbil eta arpegi aulagaz, edonor errukituteko lez.

Iragarrita egoan ordurako, kale guztia aurkitzen zan errenez beterik.

Balkoietan eta leioetan egoan jenteak arrituta esaten eban: “Nok uste izango eban Bilbao’n onenbeste kojo egoanik?”.

Atarian egozan gizon serioak adirazo eutsien kalekoei diruak gertu ipiñi bear ebezala ta orregaitik pizkaten atea itxiko ebela, ta asko belutu (tardar) barik, laster asiko zala diru-banandutea.

Itxi eben atea ba, ta gerotxoago barriro zabaldu zanean, tximistea baiño ariñago urten zan andik, zer uste dozue? Zezentxu bat!!


Nok azaldu an izan zan usubilloa? Asi zan zezentxua topeka, au bota ta ori bota, ta, ango ariñeketea kojoak izan arren! Egundoko ariñen, miñuto bat baiño lenago, garbitu zan kalea, makillaz ta burtxoez beterik gelditu zala. Milla-grua izan zan. Zezena agertu zan orduko kojo guztiak osasunera etorri ziran.

Balkoi-leioetako jentea, barrearen barreaz tripa guztia
minduta geratu ziran.

Deabrukeri au ikusi eben bilbotar zarrak barre-zoroka
asten izan jakuz berau aitatu dogun aldi guztietan.

Amaika gizon gogaldi (humor) ederreko jaio ta bizi izan
zan lenagoko Bilbao'n!

AURKIBIDEA



Irakurleentzat Oarra	1
Zerutar bat	7
Deun (santu) izateko	13
Azeri azartuak oilloa daroa	17
Aurrerapen ikaragarri bat osakuntzan	23
Peru Makur	29
Itoxurak ziñaldari	35
Garagarrillean edurra	55
Aratoste	61
Urtebarri barri	67
Kukua entzuten	73
Ziñaldari arteza	79
Tximistargi barria	83
Gizon zurrak ondo erabagi	87
Baltz euskalduna	95
Jatorria	103
Alkar aitu obe da alkar il baiño	109
Or dozu ospea ta betoz diruak	113
Azeriari azeria	119
“Berrak bearra eragin”	125
Ardao-zaleak poltsea galdu	133
Atxuri’ko “Millagrua”	139

Liburu hau Bilboko Boan
moldetegian amaitu zan 1984-ko otsailaren 4-an
Agate Deunaren bezpera eguna

Se acabó de imprimir
en los talleres gráficos de la Imprenta
Boan, S. A., de Bilbao
el 4 de febrero de 1984, víspera de Santa Agueda

“KIRIKIÑO” liburu sailla

Euskal literatura barruan, ospe zabala dau Kirikiño'k. Ez euskun liburu aundirik itxi, baiña itxi euskuna oso interesgarria da. Kazetari izan zan urteetan, eta aren artikulua labur eta ondo biribilduak, beti ditugu jakingarri.

Bere sail bein-beiñekoa ipuiña zan, alan be. Erdi edesti, erdi asmakizun, ortik jo eban. Txit gogoko yakozan jazoera barregarriak, eta onein kontalari trebe yaku bere garaian lez gaurko egunean be.

Erria Alfabetatu nairik gabiltzan une onetan, ba-dau interesik Kirikiño'k erabilitako bideak; irakur-giroa sortu eban mañaritarrek bere lanxoan bitartez. Aibat eta ainbat euskaldun ipiñi zituan euskeraz irakurtzen.

Irakurten ez-ezik, baita euskeraren gozotasunean be; euskal kultura euskeraz artu ta xurgatzen nunbait. Ez ete? Kultura ez da gai sakon-serioz jardutea bakarrik. Oro gogorria, dana zientzi ta politika; orri muzin egin barik, ori baiño geiago da kultura. Baita atsedean artzea be. "Noiz edo bein gauza arintxuak, barregarriak erabiltzea be", diñosku ark, egoki yaku.

Guk be, oraingo aldi onetan, onako sail barri bat sortu nai dogu. Sail onetako lenengo alea esku artean daukazun "ABARRAK" da. Ondoren etorriko dira ondorengoak, "Kirikiño" saillean. Batzuk jatorrak izango dira, beste batzuk itzuliak; batzuk poesiz eta beste batzuk itz lau. Gai sakonak eta ariñak; batzuk literaturari buruzkoak, beste batzuk zientzi-barrutikoak. Danak arin, errez eta zentzunez egiñak, mañaritar maisuari jarraituz.